

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: JUAN KRUZ IGE-  
RABIDE • SAHARAKO HEZIKETA  
BEREZIA • JUUL IPUINA •  
TEORIAK: JOHN ELLIOTT



GATA

Guk, geure Eskola  
Euskal irakaskuntza aurrera!








gaia

## GUK, GEURE ESKOLA

Aldarrikapen honekin batera berpiztu da euskal irakaskuntzaren aldeko mugimendua. Horren inguniko ekimenei begiratu diegu, eta Paulo Iztuetak azken urteotako gertaeren laburpena egin digu, geure hausnartarako lagungarri delarik.



elkarrizketa

## JUAN KRUZ IGERABIDE

Poeta eta idazle honekin izandako solasaldiak poema eta ipuinen artean murgildu gaitu, genero horiek eskolan nola eta zertarako landu ditzakegun argitu digularik

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

GUK, GURE ESKOLA  
Euskal irakaskuntza, aurrera!

Paulo Iztueta...

24 elkarrizketa  
JUAN KRUZ IGERABIDE

30 ekarpena

Saharako Smarako Hezkuntza Berezia

32. ekarpena

Juul: artea eta ipuina  
uztaztuz

33 berriak

Hezkuntza digitalaren biltzarra. Tuterako ikastolako instalazio berriak. Gazteak eta euskara liburua.

38 argitalpenak

Berlin Alexanderplatz. Begi argi horiek.  
Kaliforniako neskak. Gabon kanta tikiak.  
Ipuin beteak. Musikagintza.

39 teoriak

John Elliott


M<sup>a</sup> Ines Gabari

Argitaratzailea: **XANGORIN** Zirkuitu Ibilbidea, 2. Pabilioia. 20160 IASARIE-ORTA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.15.45 Fax: 943/ 36.10.48. Posta Elektronikoa: hikhasi@antza.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Airna Azpiz Erredakzio batzordea: Itziar Barriola, Mikel Estonba, Arantxa Goiburu, Mari Carmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Begoa Bilbao, Marian Bilbao, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sulupe. Diseinua: TRAM Grafik maketazio, aurreinpresioa: Xangorin Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Reggio Children. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2000/XII/22. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



Haurrak, pailazoak eta pertsonaia ezagunak protagonista.



22 euskal jolas

# Zatoz jolastera!



Eskaintza  
berezia!

Norbanako harpidedunentzat  
~~7.500 pta.~~ 1.600 pta.  
Ikastetxeentzat, 10 bidetik gora  
eskatuz gero, bakoitza 2.000 pta.

# editoriala

## urtarrila

### Euskal Herria, bizi nahi duen herria



Hamabi urte bete dira BATEGINIKek, euskararen alde, milioi laurden sinadura aurkeztu zituene-tik Estrasburgon

Dozena bat urte iragan da. Duela hamabi urte, 1988ko abenduaren 15ean, euskaldun milioi laurden bategin euskarari hizkuntz bezala dagozkion eskubideak ezagutuak izan zitezten eskatu zuen bere sinadura bidez Estrasburgon. Hori BATEGINIK kanpainaren barruan gertatu zen.

Dozena bat urte beranduago, 2000ko abenduaren 16an, milaka euskaltzalek gauza berbera aldarrikatu dute Bilboko kaleetan. Hori GUK GEURE ESKOLA, EUSKAL IRAKASKUNTZA AURRERA lelopean izan da.

Batetik bestera iragandako hamabi urte hauetan gauza asko gertatu dira: BAI EUSKARARI kanpaina, EUSKALDUNON EGUNKARIAren sorrera eta sendotzea, euskal ereduaren gorakada geldieztina...eta tar-

tean manifestu eta manifestazio asko. Eta jendea, jende uholdea, euskararen alde kalera irten behar izan den bakoitzean.

Hamabi urte hauetan "Herrien Europa" gauzatuz eta garatuz joan da. Urte hauetan guztietan tentuz zaindu dira galtzear dauden landare eta animalia asko, guztion ondarea osatzen duten eraikuntzak zaharberritu dira eta ekimen anitz burutzen dira galtzear dauden ohiturak berreskuratze aldera.

Europar joera hauek bultzatzen diren bitartean, Euskal Herrian, euskararen herrian, milaka urteko gure euskal kultura hau defendatu beharrean aurkitzen gara. Kanean eta gure irudimenak sortzen dituen bide guztiak erabiliz, estatu espainiar eta frantziarrak gure hizkuntza eta kulturaren aurka egiten jarraitzen di-

tuzten mota guztietako erasoen aurrean.

Hamabi urte hauen aurretik, lehendik ere, erasoei aurre egin behar izan genien eta aurreratzean ere horrela izango da seguruenik. Milaka urte hauetan herri honek bere iraunbizitzerako erabilitako giltzak sormena eta eraikuntza izan dira. Eta horrela adierazi du aldi bakoitzean: gurearen alde egin dugu, ez besteenaren kontra.

Euskal Herriak bizi nahi du. Eta bizinahi hau euskara, euskal kultura, euskal irakaskuntza eta gure-gureak diren adierazpen bideak garatuz gauzatu nahi du. Euskaldunok, milaka urtetan egindakoari eutsi nahi diogu: bizi eta bizitzen utzi. Garena izaten jarraitu nahi dugu, besteiei direna izatea ukatu gabe!

# kronika

Euskal Herriko unibertsitateetako ikasle eskaldunek karnet berezi bat eskuratzeko aukera izanen dute Euskal Adarrak taldeak abian jarritako ekimen berriari esker. Erabilera sinbolikoa izango duen karnet horrekin unibertsitate guztietan euskaraz ikasteko dauden oztupoak salatu nahi dira. Ikasturte honetan euskarak atzerapauso handia eman duela adierazi du Euskal Adarrak taldeak. Euskal Herriko gainerako unibertsitate pribatuetan eskalduntzeko plangintzak baldin badaude, ez dira betetzen ari. NUPen atzerakada nabarmena jasan du euskarak, eta Nafarroako Gobernuak unibertsiterako ezarri nahi duen Euskararen Legearekin ere gauzak ez bide dira hobetuko. EHUKo Hizkuntz Normalkuntza Plangintza ere nahiko zehazgabe dagoela adierazi dute Euskal Adarrak taldeko kideek. Ondorioz, ikasle eskaldunak "bigarren mailakoak" bilakatu direla adierazi dute. Egoera honek bultzatu ditu euskal ikasleentzako karneta egitera.



Seaska eta Hezkuntza Nazionalaren arteko negoziazioetan hutsune nabarmenak daude oraindik

Iazko maiatzean frantziar estatuko Hezkuntza Ministerioak Seaska Ipar Euskal Herriko ikastolen elkartearekin estatutu publikoa eskuratzeko negoziaketak hasi eta, azken egun hauetan Parisek testu proposamen bat helarazi die.

Proposatutako testu honetan, *murgiltze ereduaren ezagutza ofiziala* eta *irakasleen engaiatzeko lehiaketa publiko bereziaren antolaketa* bezalako printzipio interesgarriak azaltzen badira ere, hutsune batzuk nabarmentzekoak direla aipatzen du Seaskak.

Seaskaren esanetan, hutsune horien artean, besteak beste, ikastetxe berrien irekitze arloan finkatu beharreko irizpideen falta aurkitzen da. Horrez gain, euskara desagertzearen

joera geldiarazteko garapen plangintzarik ere ez da gauzatu. Bestalde, dekretu proiektu honek murgiltze ereduaren garapena eta iraunkortasuna ere ez dituela bermatzen azpimarratuko du.

Gainera, Ikastolen Elkarteak "babes juridikoaren" falta dagoela adierazi du, eta "zalantzak sortzen dira murgiltze ereduaren garapena babes hori gabe gauzatzerako orduan".

Dena den, testu proposamen honen edukia abenduaren 22an Baionako suprefeturaren aurkeztua izan da. Bertan, Prefetak eta Akademiako Errektoreak hautetsiekin batera, Ikastolak estatutu publikora pasatzeko negoziaketaren berri eman dute, hitzarmen berezi bat izenpetzera iritsiz. Seaska, ordea, bilkura horretatik kanpo geratu da, jarrerara honen aurka agertuz.

Horri guztiari gaineratuz, negoziazioen oraingo egoeraren arabera, Seaskak "izena eta izana" galduko litzukeela, eta berari zein gurasoei "toki eskasa" utziko litzaikeela dio Seaskak. Ondorioz, ez litzateke ikastolarik izaneren ere, murgiltze ereduaren sare publikoan sartuz, ikastolak murgiltze bidezko eskola publikoak bilakatuko liratekeelako, zuzenean Hezkuntza Ministerioaren eskuetan geratuz.

Hala eta guztiz, beste zenbait bilkura egingo dira oraindik ere, izan ere hainbat puntu dilindan aurkitzen dira.



## Gaurko haur eta gazteen artean zenbatek ikasten du Nafarroari Gaztelako armadak kendu ziola bere burujabetza?

Pello Apezetxea



## Nafarroako hizkuntz politika atzeraka doa

Nafarroako Gobernuak Administrazioan euskararen presentzia murrizten duen foru dekretua onartu du. Beronen arabera, euskararen erabilera murriztu egiten da, eta euskararen balorazioa ere aldatu egiten da. Erabilera-ri dagokionez, gaztelaniari ematen zaio lehentasuna inprimaki, agiri eta errotulazioetan. Eremu euskaldunetan euskara nahiz gaztelania berdina erabiltzea ahalbidetzen du. Eremu mistoan Administrazioak “neurri egokiak” hartuko ditu herritarrei harrera euskaraz emateko, baina barne erabilpena nahiz beste administrazioekiko harremanak gaztelaniaz izango dira. Balorazioari dagokionez, euskara Europako gainontzeko edozein hizkuntza baloratzen denean baloratuko da.

Foru dekretua ezagutu bezain az-

kar entzun dira erreakzioak dekretuak “euskararen hedapena oztopatzen duelako” eta “Nafarroako euskaldunentzat diskriminatzailea eta baztertzatzailea delako”. Gobernuari bere jarraera aldatzeko eskaera egin diotenak badira, eta auzitara joko dutela esan dutenak ere bai.

Miguel Sanzek eman duen “ezusteko” bakarra ez da izan, ordea, foru dekretu hori. Euskarazko irakaskuntzarako eskola liburuak gobernuak kaleratuko dituela ere esan zuen, eta horiek gaur egun erdarazko lerrotan erabiltzen direnen itzulpenak izanen direla.


Dena dela, geroago Hezkuntza Departamentuak Sanzen adierazpenak zuzendu ditu. Asmoa ez da gobernuak liburuak kaleratzea eta berauen erabilpena derrigortzea, baizik eta gobernuaren baimena lortzea argitaratu aurretik. Baimen hori lortzeko liburuek Nafarroako curriculumare errespetatu beharko dute. Bestalde, gobernuak dirulaguntzak emanen ditu gaztelaniazko baimendutako eskola liburuak euskaratzeko, batez ere Ingurugiroa eta Historia ikasgaietarakoak.

Gai honek guztiak, noski, harridura sortu du. Sortzen-ikasbatuazek eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak adierazi dutenez neurri hori legez kanpoko da, ezin baita liburu bat inposatu, eta are gutxiago erdaratik itzultako euskarazko liburu bat.

Frantziar estatuak, Akitaniako Kontseiluak eta departamenduak Ipar Euskal Herrirako Hitzarmen Berezia sinatu dute. Bertan hurrengo zazpi urtetan estatuak, erregioak eta departamenduak emango dituzten dirulaguntzak erabaki dira. Laguntza horiek hamar ataletan banatu dira: hizkuntz politika, kultura, ingurumena, laborantza, arrantza, industria eta formakuntza, turismoa, azpiegitura eta hirigintza, mugaz gaindiko harremanak eta animazioaren iraupena. Guztira 2.625,329 milioi liberatako gastua aurreikusten da atal guztiak kontuan hartuz; estatuak 264,84 milioi libera emanen ditu, eskualdeak 174,31 milioi libera eta departamenduak 813,36 milioi libera. Bertze dirulaguntza publikoetatik 1.093,7 milioi jasoko dira. Eta hala ere, 339,319 milioi faltako dira. Dena den, dirulaguntzak aurkeztutako proiektuen arabera banatuko dira eta 2003. urtean berrebaluaketa bat burutuko da. Beraz, orain aurreikusitako laguntzak gehitu edo gutxitu egin daitezke. Ikasmaterialgintza arloari dagokionez, Ikas pedagogia zerbitzua ez da aipatzen, eta atal hori eskualdeko pedagogia dokumentazio zentroaren (CRDP) gain utzi dute, Ikasen kezka egiaztatuz. Horrek esan nahi du, euskarazko materialgintzaren argitaratzea CRDPK erabakiko duela, eta ez Ikasek. Dena dela, Ikasek eskuhartze gehiago izateko ahaleginak egingo ditu.

# GUK, GEURE ESKOLA

Euskal irakaskuntza, aurrera!



"Guk, geure Eskola". "Euskal irakaskuntza aurrera!". Abenduaren 16an Bilbon egin zen manifestazio erraldoiaren lelo nagusiak.



*Guk geure eskola, euskal irakaskuntza aurrera!* aldarrikatu genuen abenduaren 16an Bilboko kaleetan. Euskal hezkuntzaren alde egindako lanari jarraipena emateko asmoa tinko agertu genuen, eta hemendik aurrera bide beretik jarraituko dugula ere bai.

Azkenaldian Madrildik zein Paristik jasaten ari garen erasoen aurrean geure indarrak batu ditugu. Era berean, egoeraren eta gure urteetako lanaren balorazioa egiteko tartea hartu dugu. Elkar-tu, hausnartu eta gure norabidea zuzen eraman behar dugu.

Azken urteotako gertaeren gorabeherak Paulo Iztuetak laburbidu dizkigu. Ildo beretik, egungo egoeraren aurrean euskal irakaskuntzan dabiltzan hainbat pertsonen iriztiak ere jaso ditugu. Guztien baloraziotik gauza bat ondorioztatzen da: *guk geure eskola, euskal irakaskuntza aurrera.*

Paulo Iztueta



## Kontrola eta boterea euskal irakaskuntzan

Prentsak jakinaren gainean jarri gaitu Madrileko gobernu zentrala hezkuntza sisteman berrikuntzak egiteko asmotan dela. Euskal Herrian, alderdi estatalistak oro, IU salbu, erasoka hasiak dira indarrean dagoen hezkuntza elebidunaren kontra, euskal irakaskuntza ematen den ikastetxeetan bortxa eta separatismoaren kultura lantzen dela salatuz. Ederki. Nafarroan UPNek jadanik euskaren kontrako neurri murriztatzaileak hartuak ditu administrazioan eta, batik batik, hezkuntzaren esparruan, zehazki testugintzaren zuzeneko kontrolean.

Demokraziaren zelaian bi hamar-kadako ibilaldia egin eta gero, zertara datoz horrelako aldaketak, horrelako erasoak? Noiz etorriko, eta oraintxe datoz, alderdi estatalista guztien orkestra-buru gobernuko PP frankistoi-dea den une honetan. Baina zergatik? Galdera hau da argitu beharrekoa.

Eskolaren gizarte-eginkizunak zein diren galdetzean, hauxe da Espainiako Hezkuntzaren Soziologian norbait den Mariano Fernández Enguitak ematen duen erantzuna, hemen azterkizun dugun gai honen askabiderako giltza eskaintzen diguna: "Ola de conformar una conciencia nacional, tanto si pensamos en los Esta-

dos nación como si referimos a las nacionalidades que carecen de un Estado propio pero han logrado recursos e influencia en materia de educación". Hau hain da egia, ezen estatuak, bere hiritarren leialtasun-atxikimendua jasoz dezan, ezinbestekoa baitu jadanik baden nazio historiko jakin batekin identifikatzea, edota, horren faltan, erabat berria eraikitzea. Egun naziotzat jotzen diren Espainia eta Frantzia, adibidez, tradizio kolonialista eta inperialista handikoak izanda ere, horien naziotasuna atzo goizeko kontua da, erro etno-kulturalik ez duena. Beren estatu-lurralde osora hedatzen den hezkuntza sistema zentralizatzaile eta uniformetzaileari esker lortzen dute, hain zuzen, mirakulu hori. Euskal Herriak badu horien aldean bere abantaila, eta da, bere estatua lor dezakeenerako, ez daukala bere naziotasuna asmatzen ibili beharrik. Europako estatu moderno gehienek, izanik diren bezala nazioaskodunak, beren kontzientzia nazionala lortzeko hezkuntza sistemaz baliatu izan badira, normala da estaturik gabeko nazionalismoek ere beren hezkuntza sistema nazionala eskuratu nahi izatea edota, bederen, horretara jotzea. Herri desberdina izateak ematen dizkio horretarako eskubide guztiak.



Gatozen egungo Hego Euskal Herria, non, estatu-botere zentrala eta autonomikoak koexistitzen baitira, baina ez nagusiagoa denak menpekoari bere kontrol-neurriak jarri gabe. Aldian aldiko koiunturak horretarako bide ematen dionean, noski, indar-koerlazioak ere neurtu egin behar baitira. Testuinguru honetan kokatu behar dira PPK eta honen sokako sukurtsalistek egin nahi dituzten berrikuntzak. Zehaztasunez Euskal irakaskuntza autonomi aroan (1983-1994) liburuan azaltzen dugun bezala, gaurkoa ulertu ahal izateko, bi lege dira beste guztien gainetik kontuan hartu beharrekoak: bata 1982koa, zeinetan hezkuntza elebiduna arautzen baita, eta bestea 1993koa, zeinetan sare bikoitza -pribatua eta publikoa- finkatzen baita.

*Euskararen erabilpena araukizteko oinarritzko legea: elebitasunaren ezarpena*

Euskal Autonomia Estatutuak (1979) 6. artikuluan aldarrikatzen du euskararen ofizialtasuna EAEn, gaztelaniaren pareko eginez, zeinetan bertako hiritar guztiei aitortzen baitzaie hizkuntza biak -euskara eta gaztelania- ezagutu eta erabiltzeko eskubidea. Elebitasun-printzipio hau gartzera dator goian aipatutako 1982ko Legea, PSOE-PSEekin adostu ondoren, azaroaren 24ko parlamentu-ekitaldian onartua izan zena. Hor arautzen dira hiritarren hizkuntz eskubideak eta hezkuntza elebidunari buruzkoak, hauek zehazki 21. artikuluan, zeinaren arabera, hezkuntza sistema euskalduntzeko, lau hizkuntz eredu finkatzen baitira, X, A, B eta D ezagunak. Paradoxikoa badirudike ere, Ikastolen hizkuntz eredu -murgilketarena- auzitan jartzen da, A eta B ereduak, haur erdaldunen euskalduntzeko, D eredu bezain eraginkorragoak bailiran. Ikastolek hirugarren sarea osatzen baititute, horien titularitate-erregimena arautzeraz dator 1983ko EIKE Legea. Bi legeok izango dira, bada, garai honetako erreferentzia nagusiak Euskal Herriko irakaskuntzan, biak eztabaidatuak, -arrazoi desberdinengatik eta, gehienetan, kontra-



rriengatik-, goitik indar estatalisten eta behetik indar euskaltzaleen aldetik.

Gure ustea da, euskal irakaskuntza antolatzeko orduan, irizpide pedagogikoak baino gehiago politikoak nagusitzen direla eta, halaber, lurraldearen irizpidea alde batera utzita, soilki pertsonari dagokiona hautatzen dela. Hizkuntz ereduaren ezarpena, hain zuzen, botere autonomikoaren neurri aplikatutako hizkuntz politikaren ondorioa da eta sistema honek, gaur arteko emaitzek egiaztatzen duten bezala, nahiz lege-helburuetan hala aitortua etorri, ez du balio izan eskola umeak euskalduntzeko beren obligaziozko eskolaritatea bukatzean. Hona hemen 1989-90 ikasturteko datu adierazgarri batzuk: OHOn % 58,19 eta BBB-UBIn, berriz, % 81,84, artean A ereduaren zebiltzanak ziren. Berrikitan Inaxio Oliveri hezkuntza kontseilariak egun EAEn % 75 ikasle D ereduaren eta % 15 B ereduaren dabilzala esan du Argia astekarian egindako elkarrizketan, portzentaia horiek zein ikas-mailari dagozkion batera zehaztu gabe. Hauxe bai dela hezkuntza-errealitatea itxuragabetzeko adibide ezin garbiagoa, geure buruak engainatzeraz baizik ez garamatzana. Izan ere, 1998-99 ikasturteko datuak hartuta, portzentaia oso bestela banatzen dira baldin ikas mailak orotara hartzen badira: A ereduaren % 49, Dn % 33, Bn % 17 eta Xn 1. Inaxio Oliveri jaunak dakarren D ereduaren % 75 hori azken ikasturte honetan EAEn matrikulatutako haur kopuruari da-

gokiona izan liteke eta, zentzu horretan, egiazkoa. Baina kontseilari jaunak ez du esaten 1998-99 ikasturtean Bigarren Hezkuntzan D ereduaren ikasitakoak zenbat ziren. Noski, ikas maila horretako datuak orotara hartuta, oso bestelako hizkuntz errealitatea agertzen da, zeren beren ikasketak D eta B ereduaren egindakoak, hurrenez hurren, % 27 eta % 10 besterik ez baitziren izan. Ikasle gehienek, bada, elebaker izanez bukatzen dituzte obligaziozko beren eskola urteak, A ereduaren % 63ko portzentaiaekin. Egiazki kontatzen duena ez da abiapuntua, -nahiz hau ere garrantzitsua izan-, helmuga baizik, honek erabakitzen baitu egiazko elebidun izatea ala ez izatea. Azken datu hauxe da kontseilariak ezkututzen duena eta guri, hain zuzen, gehien interesatzen zai-guna.

Kontraesan nabarmena dago, bada, helburu aitortuen eta egiazko emaitzen artean. Arrazoiketa pedagogikoaren izenean estaldu nahiko dira alderdi interesen neurri hartutako erabaki politikoak. Hezkuntza elebidunaren planteamendua, azken batean, erabaki politiko baten ondorioa izan da. Eleaniztasuna fenomeno unibertsala da -bost mila hizkuntzatik go-ra mintzatzen dira mundu zabalean zehar-, baina estatu gehienek, -hasteko Europakoek, salbuespenak salbuespen-, elebakartasunaren politika mantetzen dute beren lurraldeetan. Elebitasunaren onarpen ofiziala estatuarik gabeko nazioen kontua da; lekuko



G

# GAIA

## Geuk, geure Eskola

Euskal irakaskuntza, aurrera!



hizkuntza gutxiengo-egoeran dagoen gurea bezalako komunitate autonomo bati dagokiona, beraz.

Lege honen aldarrikapenak, hasieran bertan, bi muga handirekin egiten du topo. Lehenengoa da, -orain hemen bereziki gogoratu beharrekoa-, hari ezezkoa eman zion bakarria orduan Alianza Popular deitzen zitzaiona izan zela eta, orain ikusiz gatozen bezala, ahal izan duen bezain laster pasatu duela orduko faktura. Bigarrena da, gobernu autonomikoak P-SOEren onarpena lortu bazuen ere, honek, praktikan, haren garapenari dagokionez, zailtasunak ezarri izan dizkiola Madrilan. Honela, gobernu zentralak, auzitegi konstituzionalaren bidez, lege autonomikoaren zazpi artikulua inpugnatuko ditu, esanez, besteak beste, funtzionari publiko erdaldunak euskara ikastera behartzeak diskriminazioa inplikatzeko duela. Teorian elebitasuna onartzen da, bai, baina, praktikan, batzuentzat bakarrik balioko du, ez baitago inor euskara ikastera behartua. Euskaldunak izango dira egiazko elebidun izanez segitzen duten bakarrak. Izan ere, konstituzio-legearen arabera, gaztelania da estatu-lurraldean jakin beharreko hizkuntza bakarria.

### Euskal Eskola Publikoaren Legea: ikastolen desagerpen ofiziala

Ikastolak egoera pribilegiatuan bizi zirela pentsatzen baitzuten, noizbait behar eta, 1993ko Lege hau PSO-Ek, Fernando Buesa Hezkuntza Kontseilaritzako buru dela, PNV eta EErekin adostasunean burutzen duen obra nagusia da, José Ramón Recalde ikertitako bideari azken errematea ematera datorrena. Kasualitate handiegia ere bada PNVk hezkuntzako ardura behin eta berriz PSOEkoen eskuetan

utzi izana. Lege honekin, garbiki esanda, ziklo bat bukatzen da eta beste bat hasten. Lehen aipatutako liburuan bertan azaltzen dugu Ikastoletan eta euskarazko irakaskuntzaren aldeko gizarte-sektoreetan nolako alternatibak aurkezten diren: batetik, PNVrena eta, zeharka, Ikastolen Elkartearena, EIKEren bidetik, eta bestetik, H-Brena, EEPA eta Sortzen plataformen eskutik. Lehengo galdera bera errepikatzen da orain ere: hezkuntza sistemen euskalduntzea nondik eta nola bideratu behar da, sare autonomoa indartuz eta hedatuz, ala sare publikoan sartuz eta barrutik eraginez?

Lege honek, zeinaren aurrean amore ematen baitu Ikastolen Elkarteak ere gobernuak den PNVri dion txikimenduarengatik, Ikastolen mundua bitan zatituta uzten du: indartsuenak pribatizazioari eusten diote eta ahulenak, aldiz, publikatu beharrean aurkitzen dira. Egun, irakaskuntzaren euskalduntzea bi sare horietatik bideratzen da, gure ustez, alde onerako eta alde txarrerako ere bai. Onerako, zeren Ikastolen publikazioak, hein batean, euskarazko irakaskuntza sare publikoan indartu eta, bide batez, Ikastolekin ere zubiak egitea suposatzen baitu. Elkarlan honen emaitza umotua da Sortzen-Ikasbatuazek 1999ko urte hasieran kaleratutako hezkuntza sistema propioaren aurkezpena. Txarrerako diogu, eta tamalez, zeren Lege horrek, hurrenez hurren GUMA eta EGARI dagozkion 1. eta 2. mailako hizkuntza profilak ezarri eta HP1en presentzia hizkuntz eredu guztietan beharrezkoa egitean, hezkuntza sistema osoa baldintzaturik uzten baitu gaztelaniazko funtzionamenduaren alde. D ereduko ikastetxeetan ere beti egongo da irakasle euskaldunen artean euskaraz normal-

tasunez hitz egiteko zailtasunak dituen erdaldunen bat edo gehiago.

Bestalde, irakasle erdaldunentzat amnistia antzeko neurriak ere hartzen dira bertan, zeren, batetik, HP1eko titulua lortzeko epealdia hamar urtera arte luzatzen baita eta, bestetik, euskara ikasteko ezintasun fisiko eta psikikoak agertzen dituztenak ere obligazio horretatik libratu egiten baitira. Beraz, modu batera ez bada bestera, irakasle erdaldun gehienei erdaldun izanez segitzeko aukera eskaintzen zaie. Bestalde, sekula ez dugu jakin izan I-RALEk zenbat euskaldundu dituen, ikasgai guztiak euskaraz emateko gauza direnak, alegia. Kontua da, urteak badoazen arren, oraindik ere irakasle multzo handi bat, -1997ko datuen arabera, % 40 ingurukoa EAeko sare publikoan-, ikasgaiak euskaraz emateko ez dela gai, irakasle gaituak langabezian segitzen duten bitartean. Beraz, egia osoa esateko, euskarazko irakaskuntza emateko gaitua dagoen irakasle kopurua % 60koa da eta ez, Inaxio Oliverik dakarren bezala, % 70koa.

Bere garaian euskal sindikalgin-tzak ez zion behar bezala heldu arazo horri eta egun majo asko ordaintzen argi gara orduko okerrak. Hauen artean larrietako bat hau da: euskarazko irakaskuntzaren aldeko gizarte eskea handituz doala eta euskal administrazio autonomikoak ez duela aski

azpiegitararik, -aski irakasle elebidunik, alegia- eske horri gutxienezko duintasunez erantzun ahal izateko. Eta ez du ez irakaskuntza ez unibertsitarioan ezta unibertsitarioan ere. Estatistikak lekuko.



Ondorio negatibo horiek eta aipatu gabe geratu diren beste batzuk dira euskalgintzak ordaindu behar izan dituenak. Ez da ahaztu behar, bada, PSOEk ere pasatu zuela bere faktura PNVren gobernukide izan zen garaian.

Bestalde, ez da uste izan behar 1983-1994 epealdian zehar ezker abertzalearen baitan euskal irakaskuntzaren gainean landutako diskurtsoa erabat uniformea izan zenik, nahiz eta egin izan diren azkerketa asko -agian gehienak- gehienbat sigla politiko-sindikalek argitaratutako testuetan oinarrituta eginak izan. Ikastolen inguruan eraikitako erresistentzia diskurtsoa uste baino anitzagoa izan da bere adierazpenean. Zentzu honetan, EIKE eta EEPA alternatiben aurrean, adibidez, Euskal Herriko hezkuntza sistema euskaldundu ahal izateko, ezinbestekotzat jotzen genituen orduan jarraiko bi baldintza hauek: bat, irakasle euskaldunen harrobia ziurtatzea eta horretarako Irakasle Eskolen

antolaketa eta curriculum euskalduntzea, eta bi, erabat euskalduna izango den Euskal Eskola Nazionala eraikitzen hastea. Bi proposamen horiek formulatu eta gero, azkenean bi galdera eginez ixten da 1983-94ko epealdia lehen liburuan. Lehenengo, hau da: Euskal Herri osoko haur populazioa egiazki eleaniztun, -ez bakarrik erdaldun, euskaldun ere bai, noski-, bilaka dadin, posible ote da helburu hori lortzea elebakartasunean oinarritutako hezkuntza sistema nazionala eraiki gabe? Bigarrena, beste hau: posible ote da egun indarrean dagoen euskal hezkuntza sistema autonomikoari izaera nazionala ematea, estatu-botererik gabe?

**Euskal hezkuntza sistema nazionalaren aldia: nazionalista espainolaren eraso euskal curriculumaren kontra**

Baina zer gertatzen da PP eta beronen aliatuek hain erasokor ager daitezten? Zer berezi ikusi uste dute egun lehen ematen ez zenik, zehazki irakaskuntzaren munduan? Agian, terroristen hazia ereiten dela bertan? Ez gauden hain ziur honetaz, ez baitira hain zozoak horrelako ipuin funsgabeetan sines dezaten. Errazago uste izango genuke, urrats bat zuzen eta beste bat

oker bada ere, euskal irakaskuntzak aurrera egin duela, ez bakarrik euskal lerroen hedapenean, baita hezkuntzari buruko planteamenduetan ere. Hainbeste, ezen, hasiera hartan ez bezala, egun argi eta garbi hezkuntza sistema nazionala eraiki beharra planteatzen baita. Eta diskurtso honek beritasun osoa du, zeren euskal nazionalismo historikoak, Iñaki Zabaleta Imazen ikerlan jakingarriak frogatzen duen bezala, ez baitu horrelako planteamendurik sekula egin izan. Egia esateko, ezta ezker nazionalismoak ere oso oraintsu arte.

Beraz, Lizarra-Garazin Euskal Herriari bere etorkizuna erabakitzeke ahalmen politikoa aitortu zaionez geroztik, horregatik, batik bat, estatalistek beren nazionalismo espainolaren aurpegia erakutsi behar izan dute eta horretarako, beste arma batzuen artean, hezkuntza sistemaz baliatzen dira, belaunaldi berriaren gizarteratzean euskal nortasun historikoaren ezagueriak errotik ezabatuak izan daitezten. Euskal Herriari bere historia ukatu nahiko zaio, herritarrek bere nortasuna haren ispiluan islaturik ikus ez dezaten.

Horregatik, euskal curriculumaren diseinuan zuzeneko eragina izatera datoz, nire ustez, gobernu zentralen lege-bidezko eraso hauek. Beren estrategian ez dabilta hain desbi-





deraturik ere. Nico Poulantzasek dakarrenez, estatu-boterearen materialtasuna osatzen duten elementuetako bat, nazioaren eraikuntzarekin batera, legearen nagusitasuna da. Estatuak, behar izanez gero, berak ezarritako legea alda dezake, beste legeria bati leku egiteko. Honela, nola ilegalitateala hala legalitateala, biak dira bere egituraren parte hartzen dutenak. Horixe da, ez besterik, PPK egin gogo duena euskal curriculumean aldaketak eginez. Lehen esan bezala, nola emana zion bere ezezkua elebitasunaren politikari Gasteizko parlamentuan, orain estatu-boterea bere esku duelarik, indartsu sentitzen da, antza, horrelako kontrol-neurri lotsagabeak hartzeko. Lehenago ere saiatu zen Esperanza Aguirre "Humanitateen dekretua" aldatzen, baina orduan PSOE ere kontra atera zitzaizolako, PPK ezin izan zuen lortu bere asmoa. Orain, ordea, PSOE euskal nazionalismoaren kontrako erasoan aliatu fidela duenez gero, legeztatuago ikusten du bere burua bere betiko asmo likidazionistak azken bururaino eraman ahal izateko. Ez gaitu harritu behar PSOEkoek gurutzada honetan parte hartzen ikusteak, alderdi honek, lehentxeago ikusi bezala, elebitasun erreala ez baitu batere gogokoa izan, ez lehen eta ez orain. Azken batean, nazionalismo soilarena baino zabalagoa den euskalgintzaren esparruan ere, alderdi estatualistak, -izen jakin batzuk salbu-, muga bat izan dira, eta dira. Bestelakorik egiaztatzea gustatuko litzaigukeen arren, errealitate gordina horixe delakoan gaude.

Hezkuntzarena eta hizkuntzarena, azken funtsean, botere-arazoak dira

Hauxe da gure tesia, Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian

liburuan frogatzen saiatzen garena. Aurreko liburuan erantzuteke utzitako galderek hemen jasotzen dute dagokien erantzuna.

Abiaputuntzat euskal lurralde historikoa hartuta, hemen, gurean, hezkuntzaren arazoa hizkuntzaren eta boterearen argitan planteatzen da. Hezkuntzaren soziologian jadanik aztertutako izan dira hezkuntzaren, hizkuntzaren eta boterearen arteko harremanak, baina sail honetan egin izan diren saio akademiko gehienak, -guztiak ez esatearren-, estatu-nazioen ikuspegi funtzionalistatik begiratuta formulatuak izan dira, edota, jarrera kritikoa agertu izan dutenengan, ia gehienetan soilki klase-ikuspegia nagusitu izan da. Estaturik gabeko nazioen kultur nortasuna eta horien jatorrizko hizkuntza gutxiengo etnikoen esparruan sailkatu eta tratatuak izaten dira, -eta halaxe izanez segitzen dute-, estatu nazioaskodunen lurralde barruan ghetto izatera kondenatuz. Ez da harritzekoa, estatuek ezarritako

kultura nazionalen testuinguru honetan, Euskal Herrian bertan, euskal gizartearen kultur pluralismoa aldarrikatzen dutenek euskararen mundua azpikultura gisa gogoematea.

Estatu Batuetako mundu akademikoan, berdin Europakoan, orokorrean hitz eginda, badirudi egun ez dela nazio arazorik; beraz, ezta estatu-arazorik ere. Komunitate desberdin batekoa izatek eratorritako arazoak, estatu zentralistaren jokabide asimilazionista auzitan jartzen dutenak, alegia, biok dira: gutxiengo etnikoak eta inmigratio-boltsak. Baina jadanik horiek ere ez dira arazo, pedagogoen komunitate organikoak bilatu baitu horientzat terapia egokia: lehen kasuan pluralismoaren diskurtsoa eta bigarrenean interkulturalismoarena. Bietan tolerantziaren diskurtsoa egiten da, gizabanakoek dituzten esku-bideen aldarrikapena, alegia. Herri eskubide kolektiboak, antza, ez dira existitzen.

Horregatik, jarrera akademiko ho-





rietatik aldeniduz, euskal arazoak berekin daraman espezifikotasunaren edo, gaurko hitzez esanda, desberdintasunaren gainean eraikitzen dugu geure diskurtsoa, zeina, funtsean, lurraldean, hizkuntzan eta herri eskubide kolektiboan zertzen baita. Klasi-koek uste zuten, -eta oraino kolore desberdinetako estatu-nazionalistak horretan daude-, nazio-arazoak trenkatuta geratu zirela XIX. mendean. Baina geroztiko historiak gezurtatu egin du uste hori, zeren, egun indarrean dauden nortasunezko subjektu berrien artean, nazio-mugimenduak aurkitzen baitira, baita Europa zahar-aren bihotzean bertan ere, eta hauek beren erresistentzia mota desberdinen bidez estatu-nazioen legitimitatea auzitan jartzen baitute.

Azken batean, hezkuntzaren zein hizkuntzaren zolan datzan funtsezko arazoa estatu-botereari dagokiona da. Estatuak bilakaera historiko luzea izan du eta botere-forma desberdinak hartu izan ditu. Burgesiak sortutako estatu liberala, egun zuzenbidezko estatu soziala izatera iritsi da, baina estatu-eredu hau ere, bere aurrekoaren antzera, erabat krisian sartua dago maila ekonomikoan zein hezkuntza-koan. Krisian dago, orobat, estatu sozialista ere, estatu-eredu neoliberalaren aje historiko beretsuak dituena. Zentralismoa, klasismoa eta nazio historikoen ukapena dituzu horiek. Baina ez da egia estatuak desagertzeko

bidean daudenik, historiak, hain zuzen, alderantzizkoa erakusten baitu. Datuak hor daude: 1954. urteaz geroztik, inoiz baino estatu berri gehiago sortu dira: Amerikan 12, Ekialde Hurbilean 17, Asian 25, Afrikan 56, Ozeanian 10 eta Europan bertan 13, hauetako gehienak SBSBn. Kontua da autodeterminatzeko eskubidea, oinarritzeko eskubide demokratiko bat baizik ez dena, koloni herrialdeetan aplikatua izan dela, baina Europako estatu zahar nazioaskodunek ez dutela onartu nahi printzipio hori beren lurraldez barru eta, ondorioz, ez dutela bokazio demokratikorik erakusten. "Demokrata" deitu hauek, norberaren erantzukizunak besteen bizkar botatz, horrela estaltzen dute beren demokrazi defizita. Besteak dira terroristak, estatu-aparatukoak ez.

#### Etorkizuna: subiranotasunaren lorpena

Aterabidea zein den? Poetak zioenez, ibiliz egiten omen da bidea. Ego-ki esana. Baina inora abiatu aurretik, jakin beharko da nora goazen bederen, eta nondik, bidean gal ez gaitezten.

Epe laburrera, aldi aldiko egoerak eskatu ahala, gobernu zentraletik datozen eta letozkeen eraso puntual-erantzun egokia ematea izanen da jokabiderik premiazkoena, behinena, euskararen aldeko gizarte mugimenduak zein politiko-sindikalak indartuz eta hezkuntza munduan egiazko euskal curriculum baten alde saiatuz. Espero izatekoa da, egungo koiuntura honetan, Gasteizko gobernuak LOGSEk irakasgaien antolakuntzan aitortzen dizkion gutxienezko % 45eko eskudutza horiei eutsiko die-la, bereak baititu. Hezkuntzako sailburuaren egitekoa da hori. Kanean eta eskola-munduan, bietan batera arituz eta jokatzuz, ezarritako menerapen politikari erresistentziaren kulturarekin erantzun beharko zaio. Honela, menerapen politikak, bere interesak zaintzeko, bere kultura hegemonikoa, -desberdintasunaren ukatzailea den aldetik zapaltzailea den hori, hain zuzen-, hezkuntza sisteman erreproduzitzera jotzen duen bezala, aska-

gintzarako pedagogia kritiko eta etikoak bere kultur produkzio alternati- boak landu behar ditu, alde aurretik xedeak eta bitartekoak argi finkatuz eta, bidenabar, epeak ere aurreikusiz.

Esanik daukagu oraingo hezkuntza elebidunaren politika botere auto- nomikoari dagokiona dela, zeinaren garapenari alderdi estatualistak etengabe oztopoak jarriz etorri baitira. Gure ustez, estatutismoaren aroak jadanik joak ditu bere hil-kanpaiak eta euskal politikagintza sarturik dakus- gu prozesu soberanistaren norabidean eta, hain zuzen ere, prozesu honen abian begiztatzan dugu euskal irakas- kuntzaren oraina eta geroa.

Euskal irakaskuntzak egun dituen egiturazko zailtasun nagusienak, besteak beste, inmigrazio populazio- aren handia, euskal hezkuntza siste- ma nazionalik eza, irakasle euskaldu- nik eza eta euskal intelligentsiarik eza dira guretzat. Arazo hauek hain dira sakonak, zaila iruditzen zaigu horiek gainditu ahal izatea alde aurretik euskal hezkuntza sistema nazionala eraiki eta antolatu gabe, zeinaren egi- turaketa euskal estatu subirano eta in- dependente baten babesean bakarrik gauzatuko bailitzateke. Xede horren lorpena, liburuaren azken atalean da- torren bezala, autodeterminatzeko eskubidea onartu eta bideratzetik pa- satzen da, nazio-proiektu horretan si- nesten eta dihardutenen indarrak oro bilduz. Euskal politikagintzak galtza- da berri horretatik jotzen ez badu, au- kera historiko bat galduko da, batek daki noiz arte.

Emana izan zaigun gaiari buruz- koa nolabait laburbildu beharrez, go- goeta xume hauek dira burura etorri zaizkigunak, egun euskal irakaskun- tzak bizi duen egoerari bere testuin- gurua ezartzeko asmoarekin molda- tuak. Dena den, gaiari sakonagotik heldu nahi dionak hobe du Utriusque Vasconiae argialetxeak argitaratuta- ko liburu biak, Euskal irakaskuntza autonomi aroan (1983-1994) eta Hez- kuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian aipatuak, zuzenean irakur- tzea, beren artean autonomoak izanik ere, lotura organikoa dutenak baitira.





# Geuk, geure Eskola

Euskal irakaskuntza, aurrera!

# G A I A

G

## Guk, geure Eskola

Abenduaren 16an milaka euskaltzale bildu ziren Bilbon euskal hezkuntza sistema propioa aldarrikatzeko. Ikastolen Elkar-teak, Sortzen-Ikaskatuaz-ek eta Euskal Herriko Gurasoen Elkarteek egindako dei bateratuak atxikimendu eta erantzun zabalak izan zuten. Aurrerantzean irimotasunez jarraitzeko apustua egina dagoela garbi geratu zen, eta horren isla da manifestaldia- ren amaieran irakurri zen honako mezu hau.

Euskararen Herrian, Euskal Herrian, gizarte gehiena bat dator euskara eta euskal hezkuntzarekin, eta, oro har, euskal irakaskuntzarekin. Ageri-agerikoa dugu hori matrikulazio-kampainetan, iritzi-azterketetan edo jendaurreko agerraldietan. Agerian utzi dugu guk, gaur hona etorri eta Bilbo-kale nagusia bete dugu guztiok.

Hauxe dugu hamarkada batzuetako lan emaitza hezkuntza esparruan, ikastoletan, eskola eta ikastetxeetan, euskaltegietan; azken batean, geure hezkuntza esparruan.

Bide onetik abiatu gara, baina oraindik ere biderik luzeena ibili behar dugu, eta, gainera, hamaika traba aurkitu ditugu ibilbidean. Gertatu berriena aipatzearen, hor ditugu Historiaren Espainiako Akademiak egindako



adierazpenak, Humanitateen gaineko dekretuak, edota Garzon epaileak AEKren aurka bideraturiko autojudiziala.

Baita Nafarroako Gobernuak orain dela egun gutxi batzuk, eta aurretiaz ere, euskara baztertzeko hartutako erabakiak, lingua navarrorum delakoa baztertzeko erabakiak, bitxia badirudi ere.

Frantziako Gobernuaren jarrera ere etsai izan dugu, Europako artezpi-deei muzin eginez, euskararen ofizialtasuna eragozten baitu, eta euskal irakaskuntzari atxikitako zeinahi zantzuri oztopo handiak ezartzen baituzkie. Horren adibide garbia dugu Iparaldeko ikastoletan edo sare publiko zein pribatuko eskoletan.

Baina ez gaude atzerapausorik egiteko prest. Erabaki sendoa hartu dugu, eta etorkizunean aurrerapausoak egiten, sekulako aurrerapausoak egiten, tinko jarraituko dugu, iparra galdu gabe. Eta norabide horretan abiatuko gara, Euskararen Herriari irakaskuntza sistema, euskal irakaskuntza sistema kalitatekoa, modernoa, asko-

tarikoa, kultura artekoa, berdintasunezkoa, demokratikoa, eta ikastetxeen autonomiari nahiz irakaskuntzan lanean dabiltzanei begirunea dien sistema geureganatu arte.

Hezkuntza esparrua ere zipriztintzen duten egungo egoeraren arabera eta asmo makurreko interes politikoaren jomuga izateari ezetz biribila diogu.

Beti ere, euskararen inguruan eta euskal irakaskuntzaren inguruan lortu den gizarte gehienaren onarpena oinarri harturik, sustrai sakoneko eustormak eraikiko ditugu gure hezkuntza esparruan larderi az muturra sartu gura dutenen aurrean eta gizarteak onarturiko eremu nagusiak suntsitu nahian dabilzaten aurrean.

Talde-konpromisoa aldarrikaturik, bide horretan aurrera egingo dugu egunez egun, baina, behar den guztietan, aldari ere egingo dugu kalean, entzun diezaguten, alai eta irmo, eta honako hau esango diegu:

**GUK, GEURE ESKOLA  
EUSKAL IRAKASKUNTZA, AURRERA!**

## Zer balorazio egiten duzu euskal hezkuntza jasaten ari den erasoaldien gainean?

### German Kortabarria

ELAko talde exekutiboko kidea



Guk uste dugu gertatzen ari dena oso koherentea dela politika batekin. Aspalditik, batez ere PPK, begitan hartuta zeukan euskararen gaia, euskarak euskal nortasuna sendotzen duela ikusten dutelako.

Euskara euskal nortasunaren zutabe nagusia da, eta horren kontrako plan bat dago. Euskal irakaskuntzaren eta euskararen normalkuntzaren kontrako eraso hauek horren barruan kokatzen ditugu.

Nik uste dut zera erakutsi behar dugula: eraso horiekin oso muinean jotzen gaituztela, baina euskaldunok ez gaudela prest gauza hauekin jolasean ibil daitezen, ez gaudela prest guretzat hain geurea, hain muinekoa eta hain funtsezkoa den euskaren kontrako erasoak onartzeko.

Abenduaren 16an erantzun antza, indartsua eta baikorra eman genuen, euskaldunok indar handia baitaukagu.

Helburu komun batzuk identifikatu eta horien inguruan lan egiteko kapaz garenean gaitasun eta indar handia daukagu, eta hori erakutsi behar dugu. Beste gauza bat ere azpimarratu behar dela uste dut, PPren estrategiarekin baduelako zeri-

kusirik: euskal gizartea zatitzearen estrategia. Ezin dute onartu euskal gizarteak bilakaera normalizatua izatea, eta horregatik, euskararen gaia euskal gizartea zatitzeko erabiltzen ari dira. Alde batetik, hori axolagabekeria izugarria dela uste dut, gizartearekin horrela jokatzeari benetan oso gai arriskutsua ukitzea dela. Bestetik, hori ez dugula onartuko esan behar diegu euskara argi eta garbi defendatuz, gizartearen ondare delako eta hal senti dezaten.

### Txutxi Ariznabarreta

LABeko komunikazio idazkaria



Argi dago alde batetik Madrildik datorren eraso dagoela. Herri honek bere bidea hartu duela ikusi dute, eraiki egin nahi dugula eta egunero eraikitzen ari garela Europa horretan toki bat bilatzeko. Horretarako, elementu garrantzitsuak dira euskara bera, irakaskuntza eta euskal kultura orokorrean. Ikuspegi horretatik, eraso zuzen-zuzenean doa elementu garrantzitsu horietara. Honek guztiak euskal gizarteak era zabalean erantzuteko balio du. Baina ez hori bakarrik.

Sendo gaudela ikusi dugu. Guk uste dugu indartu egin duela euskal gizartearen geure kultura, geure irakaskuntza eta geure eskola indartzeko sentitzen den beharra. Agian horren inguruko eztabaida eta hausnarketa lo egon badira ere, orian esnara egin ditu eraso honek. Horregatik, orain artikulatu den indar sozial guzti hau era positiboan ikusten dugu. Abenduaren 16ko manifestazioa ez genuen era defentsiboan ikusi, baizik eta aurrera begirako pauso berriak martxan jartzeko hasiera moduan. Zentzu horretan, gu oso optimista gaude.

### Belen Arrondo

EILASeko kidea



Abenduaren 16an jende asko bildu ginen Bilbon eta helburua argia zen. Alde batetik, gaur egun jasotzen ari garen hainbat erasoren aurka erantzun bat ematea. Eta bestetik, gure hezkuntza sistema propioa aldarrikatzea. Euskal Herrian gaur egun eraikitzen ari garen hezkuntza sistema errespetatu egin behar dutela jakinarazi behar dugu, eta aurrera jarraitzeko asmoa dugula, dudarik gabe.



# G

# Geuk, geure Eskola

Euskal irakaskuntza, aurrera!

# GATA

Joxe Leon Otaño

Gipuzkoako AEKko arduraduna



Erasoaldi hauen aurrean ez garela kilkildu behar uste dut, baikortasunez jokatu behar dugula. Nik uste dut orain arte gauzak ondo egin ditugula, hobeto egin ditzakegula, gizartearen atxikimendua lortzen segitu behar dugula eta euskarazko irakaskuntza maila guztietan aurrera ateratzen jarraitu behar dugula.

Konbentzituta nago aterako dugula. Neurri hauek guztiak desesperazioaren isla direla uste dut; estatuaren interes ekonomikoa bakarraren defendatzaileen desesperazioa. Euskara eta euskal kulturgintza aurrera doala ikusten dute, gero eta sektore zabalagoen babesa duela, eta horrek desesperazioa sortzen du.

Baina apustua irabazita daukagu. Egin behar dugun gauza bakarra orain arte bezala segitzea da, jende gehiagoren atxikimendua lortzen ahalegintzea konpromisoak berretsiz eta gizarte sektore gehiagotara iristen ahaleginduz.

Erramun Osa

Bizkaiko AEKko arduraduna



Erasoaldi hauen aurrean ez garela kilkildu behar uste dut, baikortasunez jokatu behar dugula. Nik uste dut orain arte gauzak ondo egin ditugula, hobeto egin ditzakegula, gizartearen atxikimendua lortzen segitu behar dugula eta euskarazko irakaskuntza maila guztietan aurrera ateratzen jarraitu behar dugula.

Konbentzituta nago aterako dugula. Neurri hauek guztiak desesperazioaren isla direla uste dut; estatuaren interes ekonomikoa bakarraren defendatzaileen desesperazioa. Euskara eta euskal kulturgintza aurrera doala ikusten dute, gero eta sektore zabalagoen babesa duela, eta horrek desesperazioa sortzen du.

Baina apustua irabazita daukagu. Egin behar dugun gauza bakarra orain arte bezala segitzea da, jende gehiagoren atxikimendua lortzen ahalegintzea konpromisoak berretsiz eta gizarte sektore gehiagotara iristen ahaleginduz.

Igor Arroyo

Iako bozeramailea



Erasoaldiaren azterketa askotan egin da, baina guk zera nabarmendu nahi dugu: erasoaldiaren aurrean zer-nolako jarrera hartu behar dugun euskal hezkuntza sistemaren alde gaudenok. Gure ustez, balizko bi jarrera daude. Lehenengoa jarrera defentsiboa izango litzaiteke, egun ditugun apurrei eustea eta egun dagoenaren defentsa egieta hori galtzeko beldurrez. Bigarrena, berriz, jarrera ofentsiboa izango litzaiteke. Ikusirik sektore espainiarzaleek abiatu duten erasoaldiaren helburua nolabait defentsiban jartzea eta euskal hezkuntza sistemaren alde gaudenok txokoratzea dela, jarrera ofentsiboan jarri behar dugu benetan egungo egoera eraldatzeko apustua egiteko eta behingoz Euskal Herri osorako hezkuntza sistema propioa eskuratzeko. Azken finean, Oliverik edo beste norbaitek adierazpenak egiten dituenean, badirudi egun badaukagual euskal hezkuntza sistema, horri eraso egiten zaiola eta hori defendatu beharra dagoela. Guk azpimarratu nahi duguna da hori dela sektore espainiarzaleen intentzioa; okerragoa den zerbaitekin mehatxatzea nolabait egungoari men egiteko. Zentzu horretan, ezin dugu Madrildik eta Paristik ezartzen

duten dantzaren erritmoan dantzatu, ezin gara aldarrikapenak soilik egiten egon haiei begira. Gure ustez estrategia bikoitza eraman behar da aurrera. Alde batetik Madrildik eta Paristik datozen eta planteatzen diren hezkuntza sistemei intsumisioa edo desobedientzia planteatu behar diegu, bai dekretuei eta baita jadanik aplikatzen diren curriculum espainiar eta frantsesari, testuliburu espainiar eta frantsesei, erdal erduei, unbiertsitateko eta Lanbide Heziketako gaztelaniazko klasei eta abar. Bestetik, nahi eta behar dugun hezkuntza sistema hori autogestionatu behar dugu. Ikasleok horretan ari gara, herri eskolen filosofia horretan datza. Baina hor ikas-tetxeetara eta unibertsitatera zabaldu behar dugu Madrildik eta Paristik esaten denari uko eginez eta eredu desberdin hori praktikan jarri.

## Mirari Zestau

Sortzen-Gurasoak




Nik uste dut benetan larria dela euskara arlo guztietatik jasaten ari den erasoaldi hau: hezkuntzan arautuan, ez-arautuan, administrazioan... Nafarroan oso kezkatuta gaude eta gertatzen ari dela izugarria dela iruditzen zaigu. Nik uste dut neurri bereziak hartu behar-

ko ditugula, denok benetan elkartu eta zerbait egin behar dugu denon artean. Bestela, euskara hiltzera doa.

## Xabier Isasi

UEUko zuzendaria



Gertatzen ari dena urteetako lan ildoaren eten nahi modukoa da. Urteetan lanean aritu eta produkzio mailan benetan aurrerapausoak ematen ari garen honetan, berriz ere gure jarduerarako oztopoak ditugula ikusten da. Alderdi horretatik, hezkuntza munduan gabiltzanok oso gauza sinplea aldarrikatzen dugu: unibertsitatean kalitatearen ildotik eta katedra askatasunaren ikuspegitik, gure diseinu propioa egin ahal izatea. Gure diseinu propioa esatean esan nahi dudana da urteetan egindako lanaren emaitzekin lan egin ahal izatea. Irakalaria propioaren aldeko borroka izan da ildo bat. Orain gertatzen ari denarekin gure jarduera estutu nahi dute eta jakina, gu betitik ahalegin ikaragarria eginez jardun dugu, eta une honetan ez dugu zor zaiguna soilik eskatzen, baizik eta euskaldunak pertsonak garen neurrian, gure formakuntzarako behar diren bitartekoak eta batez ere behar den askatasuna, ezinbestekoak baitira. Une honetan urteetako jardue- ra eten eta pertsona askoren

lan gutxiesti nahi dute. Guk, ordea, aurrera jarraituko dugu.

## Maite Bergara

Seaskako bulego kidea



Euskal Herri osoan ari gara jasaten erasoak, eta Iparraldean egoera ez da hobe. Azkenaldian itzuli-mizuli-ka dabilta euskararen ofizialtasuna ez eman nahian. Beti dirulaguntza zenbait emateko prest badira ere, oinarritzko onarpenik gabe. Frantses Hezkuntza Nazionalak ikastolak irentsi nahi ditu integrazioa proposatuz. Guk diru publikoa eskatzen dugu, baina Seaskak bere kudeaketa galdu gabe. Bestalde, ondoan diren beste elkarteak ere, adibidez Ikas Pedagogia Zerbitzua, orain atera da kalera irentsita sentitzen dela eta hori ez duela nahi esanez. Orokorri irratigintzan, AEKn... egoera berdintsua da. Frantsez estatuak beti funtsezko onarpena ukatzen du eta hori da gure oinarritzko borroka, hora da lortu behar duguna.

## Jesus Garmendia

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko zuzendaria

Jokoan dagoena oinarritzko eskubidea da: familiak eta gizarteak, oro har, seme-alabei





# GAIA

## Geuk, geure Eskola

Euskal irakaskuntza, aurrera!

eta hiritarrei nahi duten hezkuntza emateko eskubidea. Nire belaunaldikook arrotza zitzaigun sistema alienatzailea jaso/jasan genuen, hizkuntzatik hasten zena, baina askoz ere harantzago zihoana. Geroztik, hizkuntzatik hasita, demokratikoki, geure bidea jorratzen saiatu gara, hemen, gure Eskoriatzako Eskola honetan, beste toki askotan bezala. Ez diezagutela, orain, gure herria bizi ez dutenek gure hitza eta erabakia kendu, gure borroka eta, azken finean, gure bizitza ezabatu.

### Gidor Bilbao

EHUko Filologia eta Geografia-Historia Fakultateko Antolaketa Akademikoko dekanordea eta Latin irakaslea

Ni latin irakaslea naiz eta garrantzitsua iruditzen zait gure gazteei latina irakastea. Baina latina euskaraz irakatsi nahi dut, nire hizkuntza eta nire ikasleena euskara delako. Eta latina irakastean garrantzi berezia eskainiko diot euskarari izan duen eraginari, eta ez soilik gaztelaniara, baizik eta baita frantsesera edo gaskoira edo nafar erromantzerako bidean izan duen bilakabideari. Kultura Klasikoko liburu pare bat ere idatzi dut Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle euskaldunentzat. Gure ikasleek Grezia eta Erromako kultura ezagutzea nahi dut: historia, ohiturak, mitoak... baina horretarako ezinbestekoa da ikasleei

Lapurdumeko harresiak erakustea oraingo Baionan, edo Ledeako mosaikoak Nafarroan, eta are Nimeseko akueduktua Frantzia, eta ez soilik Lugoko harresia, Meridako mosaikoak eta Segoviako akueduktua. Gure drama da halakoak egiteko aukera izaten hasiak garenan, badirudiela eten egingo dela bidea; ez dakit PP edo UPNren "berrikuntzak" edo hobe "zaharkuntzak" gauzatzen direnean, horrela jokatzeko jarraitu ahal izango dugun eskoletan.

### Maria Jesus Goikoetxea

NUPekeko Lengua eta Literatura Didaktikako irakaslea


Nafarroan horrelako erreformen ezarpenek nabarmentasun edo indar berezia hartzen dute. Lehenengo eta behin, horren adibide dira gure lehendakariari barru-barrutik ateratzen zaizkion adierazpenak. Adibidez, berehala esan du gobernua eginen dituela testuliburuak. Lekuz kanpoko adierazpena da, eta Hezkuntza kontseilariak berehala zehaztu behar izan du, benetan izugarria delako. Baina nabardurak berak sumarazten digu argialetxeen testuliburu berrikuspena nolako zorrotasunez eramango den aurrera. Bigarrenik, gure komunitatean administrazioaren aldetik inboluzio momentua bizi dugu hizkuntzaren normalizazioari dago-

kionez. Gutako askorentzat Euskararen Legea murriztailea zen, baina dinamika sozialak bazituen bere esparru propioak sortzeko zirikituak. Zentzu horretan, inizatiba pribatuko D ereduko zentroak sortzeko aukera zegoen, eta horrek guztiak D ereduaren garapen progresiboa ekarri du. Batez ere dinamika eta eskaera sozialak bultzaturiko garapena izan da. Badirudi administrazioak ez duela begi onez ikusten edo gehiegizko garapena iruditzen zaiola. Benetan garapen horri oztopoak jarri besterik ez du egiten. Horren lehen erakusgarria administrazioeko euskararen erabileraren gaineko dekretua da. Dagoeneko egina eta ezarria dago, eta izugarri murriztailea da. Gai garrantzitsua eta serioa da, eta berriro ere gaindituta zeuden dinamikak sortuko dira.

Unibertsitatearen ikuspuntutik ere badirudi Gobernuak Euskararen Lege bat eginen duela. Unibertsitatean atipikoa da horrelako lege bat, eta formalki erabat akastuna, unibertsitatea entitate autonomoa delako eta ez dagoelako zertan legerik egin beharrik hizkuntzen erabileraren inguruan kanpoko eskari bat dela eta, kanpoko hori gobernu, parlamentua edo dena delakoa izan. Baina unibertsitateko kudeatzaileek gobernuaren ildo bera jarraitzen dute eta barne egoera latza jasaten ari gara: euskaraz eskain daitezkeen ikasgaiak ez bultzatzeaz gain, hizkuntz plangintza oso moderatua egin zen, sistematikoki geldituta dago eta parlamentuak erabakitzea soilik desio dute. Ondorioz, euskarazko ikasgaiak etengabe gutxitzen dira ikasle kopuru handiak eskatzen direlako eta abar.

# Alvaro Marchesi:

## *“Dekretuak negatiboak direla uste dut”*



**Alde batetik LOGSE Legea daukagu eta bestetik bere ezarpena. Zer iritzi duzu ezarpen horretaz? LOGSEren filosofia errespetatzen al da?**

Nik uste dut zaila dela lege bat ezartzea, eta ulertzen dut LOGSEren ezarpenak sortzen dituen arazoak. Gainera, ezartzen ari den urte hauetan arazo berriak sortu dira: komunikazioaren gizartean bizi gara, inmigratzaile kopurua gero eta handiago da, ikasleen ikateko modua aldatzen ari da...

Dena dela, ezarpenean sortzen diren arazoez eta gaur egungo egoera sozialek ez digute atzera begirarazi behar, ezta 60. eta 70. hamarkadako irtenbideak bilarazi behar ere. Etorkizuneko gizartean eta etorkizuneko ikasleetan pentsatuz bilatu behar ditugu irtenbideak. Soluzioak bilatu behar dira LOGSEk planteatutako inplustuetan sakonduz, zentroetako antolaketa egiturak indartuz, profesional berriak barneratuz, irakasleen formakuntzarako bide berriak irekiz, perspektiba berriak irakasleei erakutsiz, eskolen arteko komunikazioa aragotuz, sakontzen duen irakaskuntza ezarri eta ez azalean gelditzen dena... Ez dut uste ona denik dauden arazoaren aurrean orain dela 20 urteko soluzioetara jotzea gizartea oso ezberdina baitzen orduan.

Nik uste dut LOGSE abiapuntua izan zela, eta orain beste bultzada bat eman behar zaiola baldintza berrien aurrean eta garatu egin behar dela, oraindik ez baita garatu. Horretarako, denbora gehiago eman behar zaio.



## Zer iritzi duzu Hezkuntza Ministeritzak egin berri dituen dekretuei buruz?

Negatiboak direla uste dut, galdu-tako aukera bat izan dela. Ikaragarri i-gotzen dituzte ikasleek ikasi behar di-tuzten eduki kontzeptualak, baina sa-kontzea eragozten dute eta egungo hezkuntzako oinarrizko elementuak baztertzen dituzte. Adibidez, pentsa-tzen ikastea, sormena garatzea, dizi-plinartekotasuna, irtenbideak bila-tzea, irakurketarako gogoia... Ministe-ritzaren proposamenek ez dute bene-tan kontuan hartzen irakurzaletasuna bultzatzea, eskolako liburutegiak bultzatzea... Hizkuntza eta Matemati-kan ordu bat gehitzen dute, baina al-daketa horrek gutxienekoa izan be-harko luke egin behar diren benetako aldeketen aurrean.


Nik uste dut curriculumetan alda-keta berriak egin beharko liratekeela egungo egoera kontuan hartuta. MI-nisteritzak egiten dituen azalekoak e-ta edukien aldetik hain zabalak diren aldaketek irakaskuntzako oinarrizko helburuak ahazten dituzte.

## Neurri eta erabaki horien aurrean zerbait egin al dezake eskola komunitateak?

Behin arauak onartuz gero, ezer gutxi egin dezakeela iruditzen zait. Zerbait egin dezaketenak komunitate autonomoak eta ikastetxeak dira.

Komunitate autonomoek legeak ezartzen dituen gutxieneko edukia e-rrespetatu behar dituzte, baina curri-culuma berrezartzerakoan berregitu-ratu ditzakete nik aipatzen dudan perspektiba berri horren barruan: ira-urketa bereziki azpimarratuz, arazo-en irtenbideen bilaketa landuz, ikas-leen garapen afektibo-morala gara-tuz, ikasteko gogoia piztuz... Ez dute zenbakien tranpan erori behar; hots, ez dute pentsatu behar "Ministeritzak 20 gai jartzen baditu, guk 35". Horren orde, gai horiek mantendu eta be-rauek hezkuntzaren helburuetara berbideratu beharko lirateke.

Ikastetxeek ere gauza bera egin behar dute. Ez dute gai guztiak abia-



dura osoan ikusteko tentazioan erori behar. Ezer gutxi egin dezakete Go-bernuaren legeak edo dekretuak al-datzeko, zeinak errespetatu egin be-har diren. Baina lege edo dekretu ho-riek berregin, berrinterpretatu eta al-derdi batzuk indartu ditzakete.

## Ba al dago horretarako abagune-rik? Dekretuek uzten al dute hori e-giteko aukerarik?

Bai, ez dute lehen adinako abagu-nerik, baina bai, uzten dute. Komuni-tate autonomoek dekretua berregin e-gin behar izaten dute, eta beraz, bada-go aukera.

Nik uste dut EAE ondo doala. Bere arduradunei entzun diedanaren ara-bera, norabide egokian doa eta bere hezkuntza diskurtsotik gertu senti-tzen naiz.

GAIA  
Geuk, geure Eskola  
Euskal irakaskuntza, aurrera!

G

E L K A R R I Z K E T A

# juan kruz igerabide


Idazlea eta irakaslea



E

Kontua ez da poesia ulertzea edo ez ulertzea, baizik eta poemarekin empatia bat lortzea, zerbait sentitzea.







"Gauza  
da pixkanaka  
poesiaren  
munduan  
sartzea.  
Horretarako,  
hastapen edo  
sarrera bat  
behar da, eta  
eskola  
abagune  
polita da hori  
lantzeko"

Haur eta helduen literaturan hainbat liburu argitaratu dituzkizue adunar honek, batik bat haur literaturan. Oso gaztetan hasi zen ipuinak eta poemak idazten, eta 40 liburutik gora kaleratuak ditu.

Egun Donostiako Erizantza Eskolan eta Empresa Eskolan Euskara Teknikoko eskolak ematen dihardu. Gasteizko Euskal Filologiako Fakultatean Literatura arloko doktoreadutza eskolak ere ematen ditu.

Ipuinak eta poemak idazten jarraitzeaz gain, ordea, besteei ere bide horretan laguntzeko ahaleginak egiten ditu. Adibidez, "Poesia eskolan" izeneko hitzaldi eta mintegi asko eman izan ditu. Berak garbi dauka eskolan ipuina eta poesia lantzea aberasgarria dela alderdi askotatik begiratuta.

**Ausartzen al zara poesia definitzera?**

Definizio asko eta asko daude, eta denak dira eztabaidagai. Nik, halere, nahiko dut definizio bat ematea baino poesiaren osagaiak, inplikazioa, erabilera, balioa eta abar aipatzea.

**Dena den, zerekin lotzen duzu poesia? Zein kontzeptu erabiltzen dituzu poesiaren hitz egiten duzunean?**

Jolasarekin eta imitazio kreatiboarekin, behintzat, lotzen dut, besteak beste. Poesia jolasarekin oso lotuta dago; bate-tik, hitzaren jolasa egiten delako, eta beste-tik, tradizioz haurren jolasetan poemak esaten direlako. Eginkizun pedagogikotatik jolasa eta poesia uztartzen saiatu izan gara; jolasten ari garen bitartean lana eginez, jolasaren bitartez ikasiz...; Ebanjelioko esaldi bat parafraseatuz, esan genezake "Zorionekoak lana jolas bezala egiten dutenak".

Hala ere, jolasari bere balioa aitortuta, lehendabiziko mailan imitazio kreatiboak jartzen dut.

**Zer da imitazio kreatiboa?**

Jolasaz gain, beste zerbait eranstean diogu poema-ereduari, gure esperientziarekin lotuta dagoen zerbait. Horrela, imitatzean, beste zentzu bat hartzen du, gure esperientziari lotua. Horri deitzen diot imitazio kreatiboa. Orduan hartzen du benetakoa neurri artistikoa poesiak.

Imitazio kreatiboa teknika guztien mekanismoa eta oinarri dela uste dut.

Poesia lantzeko eta erakusteko prozedurarik emankorra da: eredu batzuk hartu, irakurri eta horien antzera jokatzeko hasi, baina sormenez, aldaerak eginez, askatasunez, norberaren esperientzia kuktatuz.

Horretarako, ez dira komeni oso egitura itxiak. Hasieran behintzat neurriei, errimeiei eta abarri errespetu gehiegi ez zaie eduki behar. Imitatzen hasi, eta pixkanaka-pixkanaka formak zorrotzen joango dira.

Horregatik, poesia erakusteak zentzu gehiago luke poesia irakasteak baino. Ikusi eta ikasi, alegia. Poema batek nolabaiteko enpatia sortzen baldin badu ikaslearen-

baitan, sormen indarra askatzeko aukera ematen du. Hori da eskulangintzan eta artisautzan gertatzen dena. Lanean ikasi nahi duenari, igeltseroari adibidez, ez dio eske-marik emango nagusiak, bere ondoan jarri eta ikusteko esango dio ikas dezan.

Imitazio kreatiboaren bidez denok barruan daukagun esperientziari bide bat irekitzen diogu, eta, bide hori ireki ahala, bere gisara ateratzen hasten dira gauzak. Imitazio kreatiboari tira eta tira hasten gara hasieran, eta gero hitzak bakarrik ateratzen hasten dira.

### **Zertarako balio du horrek guztiak? Zertarako erabil dezakegu poesia eskolan?**

Hainbat gauza lantzeko aukera ematen digu poesiak: hizkuntza, irudimena, plazerra, ezustekoa eta edertasuna, besteak beste. Gaur egun, ordea, justifikatu egin behar da horretarako balio duela gurasoen aurrean eta abar. Bestela, ez da baliagarritzat hartzen.

Dena dela, jakin behar dugu poesia ez dela segituan errentagarri egiten den arloa, alegia, aski debaldekoa dela, ebaluatzen zaila eta programazioetan txertatzen jartzeko zaila. Nolanahi ere, epe luzera, ondo landuz gero, arlorik emankorrenetakoa izan daitekeela iruditzen zait.

### **Zertan nabaritzen da emakortasun hori?**

Burua ohikoa ez den bideetatik eramaten trebatzen du. Pentsamendua eta adierazpena ohikoak ez diren bideetatik eramaten ikastea garrantzizkoa da, bizitzan ere irtenbideak bilatzeko. Gainera, izaera osoa inplikatzeko du.

### **Zein dira ohikoak ez diren bide horiek?**


Poema bat egiten dugun unetik bertatik ohikoa ez den bidetik abiatzen da hizkuntza. Konparazioa, metafora edo sinbolo erabiltzen ditugunean, hitzek balio berririk hartzen dute poema bakoitzean.

Orduan, eguneroko hizkuntzatik aldetzen gara. Ez du esan nahi hizkuntza oso ezberdina erabiliko dugunik, baina beti ere zentzu berezi bat emango diogu, nahiz eta oso hitz errazak erabili. Horrek bizitzaren alde ezezagunetara irekitzen du burua, eta oso aberasgarria da.

### **Poema bera ere aberasgarria da alderdi bat baino gehiago inplikatzeko dituelako. Zein eta nola?**

Gorputza, sentipenak eta mezua, nolabait laburbiltzeko. Poema idatzia bada ere, gorputza inplikatzeko da, bai idazterakoan eta bai irakurtzerakoan. Erritmo batekin, aurpegikera batekin... errezitatzen bada, poema gorpuztu egiten da. Geldirik irakurtzerakoan ere halako oihartzun batzuk sortzen ditu barruan. Badira indar terapeutiko bat dutela esaten dutenak ere.

Bestalde, sentipenak adierazteko generorik egokienetakoa da. Gutxitan inplikatzeko dira sentipenak eskolako idazlanean. Normalean irakurtzen eta ikusten di-





## E

'Niri  
zehar lerroetan  
literatura  
erabiltzea oso  
ondo iruditzen  
zait, baina  
literatura zehar  
lerroen morroi  
bihurtzea  
hankasartze  
handia izan  
daitekeela uste  
dut"

tugun testuak oso estereotipatuak edo informazio estilokoak izaten dira, objektiboak. Poesiak, benetan landu nahi bada, subjektiboa izatea eskatzen du, norbera barru-barrutik inplikatzeari.

Mezuari dagokionez, sinbolikoa izaten da eta oso zaila hitz gutxitan laburbiltzen. Misterioa beti hor gelditzen da.

**Poemak zenbait arlo lantzeko erabil daitezkeela aipatu duzu: hizkuntza, irudimena, ezustekoa, edertasuna, plazerra. Zer eta nola egin daitekeen zehaztuko al diguzu pixkat bat?**

Hasteko, hizkuntza lantzeko oso baliabide garrantzitsua da. Normalean idazle eta poetak eredutzat hartzen ditugu hizkuntza lantzerakoan. Nahi adina testu mota daude, eta horren bidez justifikatzeko, formalki behintzat, poesiaren eta haur literaturaren beharra.

Bestalde, irudimena lantzeko erabil dezakegula aipatu dut. Nire iritziz, pertsonaren garapenean garrantzi handia du irudimena eta hori landu egin behar da. Gaur egungo gizarteko irudimena publikitatean islatzen da batik bat.

Hala ere, neurtua dagoen irudimena da. Ni, ordea, neurtzen ez den irudimena lantzeko ari naiz, eta hori poesian aurki dezakegu. Poesiaz asko idatzi duen Gaston Bachelard-ek zera esaten du: "Errealitatea-

ren ikuspegia galtzen duena bezain neurotikoa da irudimena ahalmena galtzen duena". Esaldi hori oinarritzeko iruditzen zait.

Poesiaren beste oinarritzeko puntu bat ezustekoa da. Beti hor daukagun zerbait da, ez dakigu ziur etorkizunean zer gertatuko den. Ezuste horren adierazpenetako bat da poesia, eta artea orokorki. Poema bat egiten dugunean lehen aipatu dugun ezohiko bidetik abiatzen da hizkuntza eta horrek eramaten gaitu ezezagunera.

Bestalde, poesiak berekin darama edertasuna. Eta, nola ez, plazerra ere hor daukagu. Hitzen jolasak plazerra eragiten du. Zenbat denbora iraun ote digute txikitako ipuin, poesia eta abestiek sortutako sententzio eta zirrarek!

**Dena dela, irakasleei ez al zaie arrotz samarra egiten hori guztia?**

Hori hasierako gauza izaten da. Batek arlo bat landu ez badu, arrotz sentitzen da, eta hori normala da. Baina arlo horretan sartzen hasten den heinean, arrotz hori galtzen joaten da. Pinturan koloreekin jolasten hasten bazara, koadroak ez zaizkizu hain arrotzak egingo, nahiz eta ulertzen ez dituzun metodoak egon. Poesiarekin ere gauza bera gertatzen da; irakurtzen, errezitatzen edo mundu horretan sartzen hasten bazara, ez zaizu arrotza gertatzen.



Batzuetan kontua ez da ulertzea edo ez ulertzea, baizik eta poemarekin enpatia bat lortzea, zerbait sentitzea.

Beraz, gauza da pixkana mundu horretan sartzea. Horretarako, hastapen edo sarrera bat behar da, eta eskola abagune polita da hori lantzeko.

### **Emaizkiguzu gelan egin ditzakegun zenbait adibide edo proposamen.**

Haur txikiei dagokienez, onomatopeiak, adibidez, garrantzi handia du. Jolas egiteko poemak, gorputza mugituz esaten diren poema laburrak, sehaska kantak, eskuak mugituz errezitatzen direnak eta abar erabil daitezke. Hala ere, 4-5 urterekin oso ederki hartzen dituzte zenbait haiku, hots, irudi poetiko oso estilatuak dituzten poemak.


Dena dela, bai txikiek eta bai handiekin, dena delakoa eginda ere, azpian beti imitazio kreatiboa egongo da. Azken batean, poetarik handienek ere prozedura hori erabiltzen dute, nahiz eta beste maila batean izan.

### **Orain arte, poesia baino ez dugu aipatu. Haatik, ipuingintza ere hor daukagu. Modu berean landu al daiteke?**

Azken batean gauza beretsua da, baina ipuinak istorio bat garatzeko aukera gehiago ematen du. Ondorioz, beste teknika batzuk ager daitezke. Dena dela, oinarrian ez zait iruditzen alde handirik dagoenik poesia lantzetik ipuina lantzerako. Gainera, askotan bi gauzak batera agertzen dira: poema narratiboak eta poemak tartekaturik dituzten ipuinak.

### **Eskolan zer erabiltzen da gehien, poesia ala ipuina?**

Ipuina gehiago, dudarik gabe. Narratibio batek beti erakarmen handiagoa duela dirudi. Hala ere, gauzak era egokian egin ez gero, poemak onarpen izugarria du haurren aldetik. Hori argi ikusi dut poesia landu dudako lekuetan. Helduoi errazago-



ak egiten zaizkigu ipuinak, baina haurren jolas giroan poemak oso ondo funtzionatzen du. Askotan, pieza laburrak izanik, oso zaluak edo arinak gertatzen dira.

### **Gaur egun literatura, oro har, zehar lerroetan lantzeko joera zabal-tzen ari da. Zer iriziduzu horri buruz?**

Niri zehar lerroetan literatura erabiltzea oso ondo iruditzen zait, baina literatura zehar lerroen morroi bihurtzea hankasartze handia izan daitekeela uste dut. Alegia, literaturako lanak adibide gisa zehar lerroetan erabiltzea ondo dago, baina literatura zehar lerroetako gaiei erantzuteko sortzea okerra iruditzen zait. Gaur egun badago horretarako joera, hau da: zehar lerroetako gaietan pentsaturik sortzen dira lanak, edo sortu baino gehiago bideratu egiten dira.

Normalean idazleak gauza bat egiten du eta kitto, ez du pentsatzen honetarako edo horretarako izango denik. Baina presioaren presioz azkenean obra mota batzuk bultzatzen iritsi gaitzke. Hori gure kalterako da, zabaltasuna eta orokortasuna galtzen baita.

### **Idazten hasi aurretik baldintzatuta egotea ekarriko luke, orduan.**

Bai, eta ez hori bakarrik. Literatura mota asko eta idazle mordo bat kanpora utziko genituzke. Literatura, eta artea orokorrean, oso zabala da, eta ez dugu horrela mugatu behar, ez ideologikoki eta ez didaktikoki. Esaterako, hizkuntza erakusteko poesiaz baliatzea oso ondo dago, baina poesia horretara mugatzea astakeria handia da. Edo literatura erakusterakoan, testuak, iruzkinak eta azterketa kritikoak zein formalak egiteko soilik bideratzea bere funtziotik ateratzea da.

Literaturari ez zaio mugarik jarri behar. Adibidez, arrazismoa lantzeko, erremediorik gabe arrazistak ez diren liburuak aukeratu behar al ditugu? Zuriak bakarrik agertzen diren liburuak egokiak izan daitezke eztabaida sortzeko, adibidez.

Askotan esan izan dugu eskolak literatura ito egin duela, eta zehar lerroekin ere arrisku hori dator. Haurren aurrean adi egon behar dugu.

### **Zergatik sortzen da horrelako joera edo erabilera?**

Nik uste dut gauza nabari bat dagoela: gizartean gertatzen diren injustizien aurrean haurrak hezi egin behar ditugu. Hori egokia da. Baina horrek ezin du mugatu arte adierazpena.

Bestalde, didaktismoz jokatze joera ere izaten dugu. Horrek zer ekartzen digu? Gauza guztiei etekin didaktikoa ateratzea nahi dugu. Poesia edo ipuina, ordea, askotan debaldekoa da. Hau da, agian ez du balioko gauza gehiegi irakasteko, edo gauza zehatz eta konkretuak nahi ditugunerako. Baina gerora horri guztiari etekina ateratzen zaio, etekin pertsonala. Arazoa da hori zaila dela ebaluatzen, eta hemen ebaluatzen gabe ezer ez dagoenez...

Adi egoten ez bagara, izugarri pobretu ditzakegu ideiak, arteak bizipenak adierazteko eskaintzen dizkigun bideak mugatzen hasiz gero.



## Saharako Smarako Heziketa Berezia

Rosa Estela

Donostiako PATeko aholkularia

Saharako Smara Barrutia Gipuzkoa herrialdearekin anaidetuta dago 1996ko maiatzaz geroztik. Bertan aurkitzen da "Castro" Hezkuntza Bereziko Eskola, zeinean irakaskuntza arautuan aritzeko zailtasunak dauzkatena sahararrek beren beharren arabera ikas dezaketena. Bertan garatzen den heziketa sistema interesgarritzat jo dugunez, hona hemen, laburbildurik, haien esperientziaren azalpena.

### Testuingurua

Duela 25 urte espainiar estatuak Mendebaldeko Saharako lurraldeak utzi ondoren, bertan geraturikoek beren etorkizuna era askean erabaki zezaten ziurtatu beharrean, Maroko eta Mauritaniaren eskuetan utzi zuten. Horrela, sahararrek izugarriko herri migrazioa burutu behar izan zuten gerra izuari iheska, Aljeriako Hamada basamortu gorrian egokitu arte.

Esan bezala, gerra hotsak 16 urte luze astindu zuen (1975etik) zonalde osoa, 1991ko irailaren 6an su-etena aldarrikatu bitartean. Sahararrak biltzen dituen Fronte Polisarioak, inbasioari aurre eginez, Mauritania gailendu zuen, baina Marokorekiko negoziazioak burutzen hasteko hiru urteko kontaktuak behar izan ziren, Nazio Batuek, alde batetik, eta Afrikako Batasunerako Erakundeak bestetik, bitartekaritza lana eginez. Ordutik hona, ordea, ezin esan lurralde haietan erabateko bakerik dagoenik. Aitzitik, bakearen bermea izan behar zuen Autodeterminazioaren Erreferenduma ez da oraindik gauzatu eta, zoritxarrez, ez dirudi epe motzera ere gauzatzeko bidean egon daitekeenik. MINURSOk (Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioa) egindako errolda amaiturik badago e-

re, Marokok ez du erreferendumik nahi, eta ondorioz, 9 urteko menia haustear dago. Egoera latz honetan, bada, kokatu behar dugu "Castro" Hezkuntza Bereziko eskola bere ezaugarri guztiak.

### "Castro" Hezkuntza Bereziko Eskola

Aipatu ikastetxean sahararren gizarte ardurak islatzen dira, eta batik bat haien kezka pedagogikoak. Hau da, beren etorkizunari buruzko hausnarketa politikoetan ez dute inor alboratu nahi. Horrela, "Castro" Hezkuntza Bereziko eskolan 4 eta 26 urte bitarteko ikasleak biltzen dira (neskak zein mutilak elkarrekin, gainerako herri musulmandarretan batere ohikoa ez dena), norberaren autonomia eta herri integrazioa bermatu nahian.

Ez da, beraz, sexu banaketaren araberako hezkuntzarik nolabaiteko gizarte isolamendura ohitzeko, baikik eta bakoitzaren burujabetza helburu izanik, gizarte osoaren onarpena landuko duten jiteak irakasten dira.

Behar bereziak dauzkaten haurren eskolatzeko integraziailea ez da jarrera arrunta izaten hezkuntza alderatuan. Sahararrek, ostera, oraindik independentzia erdietsi gabe, eta latza-



goa dena, egun erabiltzen dituzten lurren jabetzarik gabe ere, "Castro" bezalako Hezkuntza Bereziko eskola a-bian dute aspaldidanik.

### Oinarri pedagogikoak

Egitasmo honetan parte hartzen dutenekin hitz eginez, berriz, argi eta garbi nabarmentzen dira haien hautu pedagogikoak. Honela, bai zuzendaritzak eta bai gainerako langileek ere, irakaskuntza ikerkuntza gisa hartzen dute. Horretarako, nork bere burua ezagutzeko eta ondoriozko gatazka kognitiboak gainditzeko baliagarriak suertatuko diren egoeretan oinarritzen dute metodologia. Bistan denez, Kubako unibertsitateetan eskuratutiko teoria konstruktivistak (Vigotski, Luria, Leontiev eta abar) eragin handikoak izan dira eskola didaktika diseinatzerakoan.

Ez dute ahazten, hala ere, premia bereziko ikasleak oinarri-oinarritzko trebetasunen jabe izan behar duela, berari dagokion gizartean behar bezala integratu ahal izateko. Horretarako, adierazgarria litzateke ikasgela-aren espazioari so egitea. Hona hemen.

### Gelako txokoak

Alde batean, psikomotrizitatea eta funtsezko ikasgaiak lantzen dira: ibilbide motzak, soinaren kontrola, mota desberdinetako objektuekiko lana (botoiak, velcroak, lokarriak, labanak, goilarak, garbiketa eta abar). Bakoitza bere gizarte funtzioarekin loturik, betiere.

Beste aldean, gela klasikoan non-bait, irakurketa eta idazketa lantzen dira (beti arabieraz -hasseniera dialektoan- eta gaztelania bigarren hizkuntza gisa). Alde honetan beste eza-guera arloak ere sakondu egiten dira.

Inguruko beste toki lasaiago batean hizkuntzaren arazoak berbideratzeko txokoa dago. Bertan ispiluz gain, ikusmen hautematea mugatu egiten da arreta zentratzeko, eta bide

batez, laneko gunearen mugak behar bezala finkatzeko.

Aurrekoaren ondoan nolabaiteko fisioterapia lantzeko txokoa dute. Aurreko bezala, oso nabarmena da baliabide urritasuna, nahiz eta ariketa desberdinen bidez egiten duten lana harri-garria izan.

Azkenik, egokitzapenari buruzko trebetasunak lantzeko tokia duzue, non oinarritzko giza jarrerak eta funtzioak irakasten diren. Haur baten taimaina duen panpin beltzaren bidez, ohetik jaiki ondorengo eguneroko urratsak antzetzten dira era sistematikoan, eta beti beren testuinguru funtzionalarekin batera.

### Ondorio laburrak

"Castro" Hezkuntza Bereziko eskolan haurren integrazioaz aritzen direnean ez dira ari eskolari buruz soilik, baizik eta beren gizartean egon daitezkeen aurreiritzien eta beldurren ezabapenez, bai kulturen eta bai familian.

Halere, Hezkuntza Bereziaren arloa Osasungintzatik gertuago dago Irakaskuntzatik baino. Edozein modutan, aipatu bi arloak (sendagintza nahiz hezkuntza) ez dituzte oso garranturik dauzkaten balibideak oso gutxi direlako, ez ordea beren prestakuntza eskasa delako.


Hezkuntza Berezian zer egin nahi duten jakin badakite ongi, eta gainera, Euskal Herrian arlo beretsuan egiten denarekin alderatuz, oso antzekoa dela esan genezake, nahiz eta haien testuingurua aski desberdina izan gu-reakiko. Dena den, funtsean, elkarren artean konpartitzeko nahikotxo dugulakoan gaude.

Ez dute materialik, baina gogo eta prestakuntza, berriz, sobera.

Mendebaldean balioen krisialdian gaudela diote. Mendebaldeko Saharako lautada gorri haiei begiratzek on egingo liguke. Hau guztia, hantxe ikusitakoa hona ekartzeko saioa duzue. Zuei ere... on egin!



# E sperientzia



## Juul: artea eta hezkuntza uztartuz

Ipuin kontaketa berezi batera –ko gonbitea luzatu ziguten Nafarroako Ikastolen Elkartetik, eta horrela, Iru eko Planetariora gerturatu ginen. Urdina nagusi zen aretoan Juul pertsonaiaren eskulturak zeuden; lurrean Elizondoko Baztan ikastolako haurrak adi-adi eserita; eta zutik, Paco Abril ipuin kontalari gijondarra. Juul ipuina kontatzera zihoan, baina aurretik galderak egin zizkien baztandarreri: nori gustatzen zaio iraintzea? Norik ez du inoiz inor iraindu? Nola sentitzen zarete iraintzen zaituztenean? Zer sentitzen duzue barnuan? Zer egiteko gogoia sortzen zaizue? Garbi ikusi genuen ez gindozazela ohiko ipuin kontaketa bat entzutera.

Haurren erantzunak aditu ondoren hasi zen Paco Abril Juul-en ipuina kontatzen. Horretarako, aretoan zeuden eskulturez baliatu zen. Ipuina kontatzearekin batera, haurrei galderak egiten jarraitzen zuen, eta oharkabean, ipuinean murgildu ziren denak.

Juulek haur bat irudikatzen du, guztiek iraintzen duten haur bat. Ile kizkurra duenez denek iraindu egiten dute, eta ilea mozten du. Burusoil gel-

ditu ondoren, denek belarri handiak dituela esaten diote, eta belarriak mozten ditu. Ondorioz, txanoa erori egiten zaio eta begiak estaltzen dizkio. Itsuka ibiltzen hasten da eta begiak zabal-zabal irekitzen ditu ez erortzeko. Betokerra deitzen diote, eta begiak kentzen ditu. Urduri jartzen da eta hitz-totelka hasten da. Horregatik ere iseka egiten diote eta mihia erretzen du entxufean sartuta. Gero hankak mozten ditu eta gurpildun aulkian gelditzen da. Besteengandik alde egiteko besoez mugitzen zuen aulkia, eta erabat zikindu zitzaion. Horregatik, besoak ur irakinetan sartu zituen garbitzeko, baina erre egin zitzaizkion. Juuli soina baizik ez zitzaion gelditzen. Beste hurrek burua kentzen diote eta futboleant jolasten hasten dira. Baina guztiz biribila ez zenez, berehala uzten dute bazterrean. Orduan, Nora agertzen da, bere panpinaren aulkian jartzen du eta Juuli zer gertatu zaion galdetzen dio. Arkatz bat ematen dio eta Juul bere istorioa idazten hasten da.

Ipuina kontatu bitartean hurrek iseka, trufa eta irainen inguruko burutazioak adierazi zituzten. Paco Abri-  
lek, erakusketako eskulturrekin eta hurrekin arituz, norberaren estimak duen garrantzia agerian utzi zuen.



Juul ipuinaren kontaketa.

# Paco Abril: "Ipuinak ikasketaren etengabeko iturri dira"

Paco Abril gijondarrak 20 urte daramatza batean eta bestean ipuinak kontatzen. Haatik, ipuinak kontatu ez ezik, horietako bakoitzarekin landuta daukan hezkuntza proiektua praktikan jartzen du. Koadroez eta eskulturez baliatzen da horretarako.

Momentu honetan haurrentzako ipuinen hamabi erakusketa ditu prestaturik. Horietako bat, Juul izenekoa, Iru ean eta Lizarran egon da ikusgai. Nafarroako Ikastolen Elkarteak Gregie de Maeyer-en Juul ipuina euskaratu du, eta argitalpen honen aurkezpenera gerturatu zen Paco Abril Iru era eta Lizarrara bere erakusketarekin, ipuinarekin eta hezkuntza proiektuarekin.

## Juul ipuinaren kontaketa entzun duten irakasleek ipuin gogorra dela esan dute. Zer uste duzu zuk?

Egia da ipuin gogorra eta krudela dela, baina helduok literalki irakurtzen dugu, eta ez metaforikoki.

Niretzat Juul hezkuntza proiektu oso gogorra da, baina haurrak berehala indentifikatzen dira berarekin, benetako ispilua da beraietzat. Juul egunero gertatzen den zerbait da.

Horrelako ipuin beldugarria entzutean, helduok pentsatzen dugu haurrek imitatu egingo dutela, eta nik uste dut ez dela hori gertatzen. Haurrek guztiz kontrakoa ikusten dute. Badirudi ezetz, baina haurrek ondo bereizten dituzte ipuina eta errealitatea. Zergatik ez dituzte sorginak imitatzeko? Apoak ikustean zergatik ez dituzte musukatzen printze bihurtuko diren esperantzak? Badakite metafora bat dela.

Ipuina homeopatikoa izatera irist daiteke. Homeopatia zure gaixotasunetik pixkat bat ematen dizun sendagaia da. Haurrei Juulekin eta beste ipuinekin beren gaixotasunaren zati txo bat ematen zaie, antidoto bat izan dadin eta beren gorputzak horren aurka erreakziona dezan.

Nik ez dut Juul dogmatikoki defendatzen, ezta gutxiagorik ere. Nik ipuin honekin egin dudana hezkuntza proiektua etahorrekin lortzen dudana defendatzen dut.

## Zer da, bada, Juul ipuinarekin lortu nahi izaten duzuna?

Helburua haurrak Juulen arazoak konturatzea eta kontziente izatea da. Izan ere, etengabe ikaskideen arteko harremana ongarritu edo sostengatzen ari da arazo hori, barneko indarkeriaren arazo da, berdinen arteko indarkeriarena. Askotan irakasleak eta gurasoak ez dira konturatzen. Horregatik, helburua beraiek kontzientziaztea eta beraien arteko liskarrak gutxitzea da.

## Azpitarratzekoa da ez duzula ipuina kontatu soilik egiten, horren azpian zerbait gehiago dagoela.

Ipuin bakoitza hezkuntza proiektu bat da, ez da narrazio hutsa. Ipuina ardatza da eta bere inguruan hezkuntza proiektu bat garatzen da.

## Zergatik garatzen duzu proiektu hori ipuinen bitartez?

Ipuinak haurtzaroko mapa afektiboa direlako. Ipuinak haurrentzat errealitatea ulertzeko bide dira, beste modu batera ulertzen ez dituzten gauzak ulertzen dituzte ipuinen bitartez, eta batez ere sentimenduak. Izan ere, sentimenduak haurren gehienezko adierazpenak dira; haurrek txikitatik



sentitzen dute, baina ez dakite sentitzen duten hori adierazten. Helduok ere zailtasun handiak izaten ditugu sentitzen duguna adierazteko. Sarritan esaten dugu sentitzen duguna adierazteko hitzik ez dugula aurkitzen. Helduok zailtasun hori baldin badaukagu, haurrek ere nola adieraziko dituzte beren sentimenduak oraindik garatu eta egituratu gabeko hizkuntza baldin badute?

Horregatik nioen ipuinak haurtzaroko mapa afektiboak direla, beren portaera propioaren klabeak ematen dizkielako. Ipuinak ispiluak dira, eta ipuineko pertsonaiei gertatzen zaiena beraiei pasatzen zaiela ikusten dute. Adibidez, haur batek beldurrezko egoeran dagoen protagonistari gertatzen zaiena berari pasatzen zaiola ikusten badu, identifikatuta sentituko da. Eta horixe da ipuinek eskaintzen duten dohietako bat, identifikatzeko dohaia. Pertsonaiekin eta haiek bizitzen dituzten egoerekin identifikatzen dira. Ondorioz, sentimenduen mapa afektibori hori egiten joaten dira eta beraien sentimendu propioak gainditzen eta ulertzen ikasten dute ipuinen bidez.

**Ipuinekin batera, ilustrazioaren indarra ere nabarmena da. Lan hauek arte plastikoa eta literarioa batzen dituzte.**

Bai, hala da. Ipuinen erakusketak



diren bezala erakusten dira, hots, artelanak bezala. Zeren, haurrentzako liburu askotako ilustrazioak benetako artelanak dira. Gertatzen dena da o-harkabeen pasatzen ditugula.

Nik egin ditudan erakusketetan testua eta irudiak biak erakusten dira, eta hurren altueran kokatuta egoten dira, gainera. Erakusketa guztiak koadroekin egindakoak dira, eta Juulena da eskulturekin egindako bakarra. Erakusketa bakoitzetik hezkuntza proiektu bat egiten da

### **Zein da honen guztiaren atzean dagoen filosofia?**

Lehen esan bezala, hezkuntza proiektu bat da, proiektu globala. Gizakia bere osotasunean hartzen duen proiektua da.

Proiektu hauetan zera nahi dut: haurra bere osotasunean inplikatzeko. Haurrak gauza asko irakaskuntzarik gabe ikasten ditu: mugitzen, hitz egiten... Ez dugu ahaztu behar gizakion ikasketarik garrantzitsuenak irakaskuntza araututik at egiten dela.

Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte etengabe ikasten ari gara, bai gauza onak eta bai txarrak. Hori ikasketa da. Baina irakaskuntza bizitzako momentu zehatz batean egiten den interbentzioa da. Orduan, gizakiok batez ere gure portaeraren bitartez ikasten dugu. Horregatik esan zuen batek hezkuntzaren definizio egokiena zera izango litzatekeela: ikasketa mesedetzen duen hura da hezkuntza. Beraz, haurrei ikasten laguntzen ez badiegu, ez dute ikasiko. Ez da gauzak sartzea, baizik eta beraiek beren nia eratzen joatea.

### **Zer eragin dute ipuinek ikasketa horretan**

Ipuinek izugarriko garrantzia dute haurrentzat, ipuinen bitartez gauza pila bat ikasten baitituzte. Ipuinak ikasketaren etengabeko iturri dira. Ipuinen bitartez besteekin erlazionatzen ikasten dute, oharkabean alde egiten diguten errealiteri buruzko galderak egiten dituzte... Kontraesana dirudi, baina fikzioaren bitartez i-

risten dira errealiteri haurrak. Errealitatean ez daude ipuinetako sorginak, mamuak, ankerrak... baina bai beldurrak. Eta ipuinen bitartez haurrak berak ere bere beldurrak gaindi ditzakeela ikasten du.

### **Zer iritzi duzu irakurketaren dinamizazioari buruz?**

Zer ulertzen dugu irakurketaren dinamizazioa bezala? Hori da lehen-dabizi argitu behar duguna.

Normalean neska-mutilek ez dutela irakurtzen esaten da. Eta zergatik ez dute irakurtzen? Zer egin behar dugu haurrek irakur dezaten?

Nik uste dut alderantziz hasi behar genukeela: nola ez egin haurrak irakurle? Ez gara ez-irakurle jaiotzen, baizik eta irakurle egiten gaituzte jaiotzen garen unetik beretik. Oztopo izugarri jartzen zaizkigu irakur ez dezagun. Lehen oztopoa familia da; oso haur gutxik ikusten dituzte gurasoak irakurtzen. Eta haurrek helduek egiten dutena imitatzen dute. Beraz, irakurtzen ikusten ez badituzte, ez dira irakurketan zaletzen.

Oso guraso gutxik irakurtzen edo kontatzen dizkiete ipuinak seme-alabei. Beraz, hori ere ez dute ikasten.

Eskolan, irakurketaren plazerra garatu beharrean, irakurketa inposatu egiten da. Eta hori kontraesana da; haurrak ez du irakurtzeko plazerra garatuko irakurketa hori inposatu egiten bazaio.

Eskolak irakurtzen irakatsi behar du, ados. Eskolak haurrek irakur dezaten lortu behar du, ados. Baina inposaketak irakurtzeko desioa errotik kentzen du. Beraz, beste zer egin dezakegun pentsatu behar da. Eta hori Piagetek orain dela urte asko esaten zuen: "Gauza ez da haurrek nahi dutena egitea, baina bai egiten dutena nahi izatea".

### **Gela barruko hezkuntza gizartera eramatearen aldekoa zara.**

Ni horretan ari naiz lanean Gijongo Udaleko Kultura eta Hezkuntza Munizipalaren Fundazioetik. Jende asko ari da konturatzen eskola ez dela nahikoa haurrek jaiotzen direnetik hiltzen diren arte egiten duten ikasketaren prozesurako. Heziketa hori baino gehiago da. Eskola bakarrik ez da hezitzailea, gizarte osoa baizik. Horregatik, gizarteak hezkuntza sistemen korrespondentsal izan behar du.

Guk Gijongo Udalean Heziketa Programen Saila eratu dugu, eta eskolarekin estuki lotuta dago. Sail honetatik eskolari berak eman ezin dituen ikasketak aukera guztiak eskaintzen dizkio. Adibidez, hiru hilabetetik behin ikuskizunen programa bat egiten dugu, eta hirian egin daitezkeen hainbat gauza jartzen diegu aukeran: antzerkia, erakusketak, herriko monumentuak, naturaren inguruko ibilbideak... Eta ikasleei ez ezik, gurasoei zuzendutako eskaintzak ere prestatzen ditugu.



II. hik hasi

Udako Topaketa

Pedagogikoak

Norbaitek ekarpenen bat

egin nahi bazu, jar dadila

gurekin harremanetan

urtarrilaren 17a baino

lehen



# Berriak urtarrila

## Hezkuntza digitalaren biltzarrak interesa piztu zuen

Hezkuntza Digitalaren Nazioarteko I. Biltzarrean 800 irakasle, guraso, eskola zuzendari eta hezkuntza arduradun bildu ziren. Bi egunetan zehar Teknologia Berriak eta hezkuntza hizpide eta aztergai izan zituzten Bilboko Euskalduna Jauregian. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatutako biltzar honen helburuak hiru izan dira: hausnarketa teorikoa egitea, irakasle eta familien zeregin berria aztertzea eta hezkuntza digitalari buruzko esperientzia praktikoak ezagutaraztea.

Xede horrekin lehenengo egunean *Europa eta informazioaren gizartea* gaia aztertu zen, eta horrekin batera *Teknologia hezkuntza munduan*. Bigarren egunean errealitate birtuala izan zen aztergai. Horren inguruan hainbat ikastetxetan egiten ari diren esperien-

tzia praktikoen berri ere eman zen.

Era berean, hainbat liburu eta material erakusgai izan ziren, guztiak Interneti eta hezkuntza digitalari buruzkoak.

Besteak beste, Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburuak bere Sailaren Premia Planaren berri eman zuen. Hezkuntza sisteman Teknologia Berriak bultzatzeko plana da berau. Datorren ikasturtean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxe guztiak Interneti konektatuta egotea da planaren xedea. Zentro bakoitzarentzat herri mailako sarea jarriko dute, eta baita zentroen arteko konexioa ere.

2001. urterako ikastetxe guztiak sarean egongo dira. 2002. urtean irakasleak Interneten nabegatzeko prestatuta egotea espero da. Eta 2003. urtean ikasleek hezkuntza digitala jasoko dute.

### Sofrologiako Oinarrizko I. Ikastaroa

2001eko martxoaren 3, 4 eta 5ean Sofrologiako Oinarrizko I. Ikastaroa burutuko da Bilbon. Mediku, psikologo eta psiko-pedagogoei zuzendutako ikastaroa da.

Sofrologia teknika psikoterapeutikoa da eta nortasunaren oreka ziurtatzea eta bereziki sententzio mingarriak eta ondoez psikikoa kontrolatze du helburu.

**Informazio gehiagorako:**  
Sofrologiako Nazioarteko Eskolaren VIII. Saila  
Santa Maria kalea 8 - 1.  
48005 Bilbo  
Tel: 94 416 33 69  
e-maila: [ibe@euskalnet.net](mailto:ibe@euskalnet.net)



Teknologia Berrietara egokitzeko bidean hezkuntzak zeregin garrantzitsua du.





## Europa berriko hezkuntza sistemen desberdintasunak

**Europar Batasuna hazkunde prozesuan dago, Batasuna osatzen duten 15 herrialderi beste 12 gehituko baitzaizkie. Horrek ekarriko dituen aldaketan inguruko hainbat azterketa egiten hasi dira, eta hezkuntza ikuspegia aztertu duenik ere bai. Europar Komunitateko Eurostat bulegoak kide zaharren eta berrien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak bildu ditu txosten batean.**

**Hautagai diren herrialdeak honako hauek dira: Albania, Bosnia-Herzegovina, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Estonia, Mazedonia, Hungaria, Lituania, Letonia, Polonia, Errumania, Eslovenia eta Eslovakia. Herrialde horietan, Erostaten txostenak dioenez, Haur Hezkuntza gutxiago garatua dago. Europar Batasunako egungo herrialdeekin alderatuta, haurrak beranduago hasten dira eskolan, eta bukatu, berriz, lehenago. Lehenengoan kasuan, 18 eta 24 urte bitarteko %23k ikasten jarraitzen du, eta bigarrenetan batz besteko horretara Estonia, Lituania, Letonia, Eslovenia eta Bulgaria bakarrik hurbiltzen dira. Horietatik gehienak emakumezkoak dira, gainera.**

**Aipatu txostenaren beste ondorioetako bat zera izan da: ingelesa izango dela etorkizunean europarren arteko komunikazio hizkuntza. Ikergai izan diren 28 herrialdeetatik 18tan ingelesa irakasten da atzerriko lehen hizkuntza bezala.**

**Bestalde, herrialde hautagaiekin, Europa gaztetu egingo dela dio txostenak, populazio gazte gehiago baitute herrialde horiek.**

## Tuterako Argia ikastolan instalazio berriak inauguratu dituzte eraikina txiki gelditzen ari delako

Tuterako Argia ikastolak instalazio berriak inauguratu ditu. Izan ere, gero eta haur gehiago ditu, eta ikastola txiki gelditzen ari da.

Orain dela bost urte joan ziren gaur egun dauden eraikinera. Orduan 100 ikasle ziren, eta momentu honetan, aldiz, 250 dira. Iaz 30 haur matrikulatu ziren Haur Hezkuntzan, eta aurten 46. Euskarazko irakaskuntzaren aldeko hautua egiten dutenen kopurua haziz doa, beraz, Erriberan ere.

Haziz doan eskaerari erantzuteko eta kalitatezko irakaskuntza bermatzeko, jolastoki estali bat duen bigarren solairua eraiki dute. Horrez gain, laborategia jarri dute, jangela handitu egin dute eta baita irakasle gela ere. Aurrera begira kirol-instazioak eraikitzeko asmoa dute.

Eraikinen apustuarekin batera, langileen aldekoa ere egin dute, Argia ikastolako langile kopurua ere haziz baitoa.

### Argia ikastolaren historia

Tuterako ikastolaren ibilbidea 1984an hasi zen Peña Beterriko lokalatan sei ikaslerekin. Bederatzi urtean zehar leku aldaketa bat baino-

gehiago jasan behar izan zituzten, eta azkenean, 1985ean gaur egun dauden egoitzan kokatu ziren. Tuteran ospatu zen Nafarroa Oinezek bultzada handia eman zion, eta atera zen diruarekin eraiki zen orain handitu beharrean aurkitu diren eraikina.

Ikastolaren osasuna ona bada, bertako jendearengatik da. Ikastolak egiten duen lanean sinetsi egiten du jendeak, eta euskararen aldeko apustua egin du. Tuteran ikastola sozialki integratua dago. Ikastolako Guraso Elkarteak ere gainontzeko guraso elkarteekin eta Udalarekin elkarlanean jarduten du.

Hala ere, ikastolak alegala izaten jarraitzen du, eta ondorioz, ez du inolako dirulaguntzarik jaso eraikineko berrikuntza horiek egiteko. Gurasoek egin beharko die aurre sortu diren eta sortuko diren gastuei.

Oraindik Erriberan euskararen presentzia nahiko txikia izanagatik, aurrerantzean bere protagonismoa areagotu egingo dela uste dute ikastolako langileek eta gurasoek. Ilusioz hasi zen proiektuan partaide aktibosentitzen dira, proiektuan sinesten dute, eta hori da lanean jarraitzeko akuilurik eraginkorrena.

## Gazteak eta euskara

### Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko gida

Gida funtzioa duen argitalpen honen helburuak bi dira nagusiki: gazteen artean euskararen erabilera gehitzeko dauden programak ezagutaraztea, eta udalerrietan programa horiek garatzen dituzten erakundeen arteko elkarlana sustatzea.

Xede horrekin, Euskal Herri osoan 12-18 urte bitarteko gazteei bidertatuta dauden programak jaso dira. 13 ataletan banatu dira programok: gazteei buruz eta euskarari buruz kontuan hartzekoak, ikastetxeko dekalogoak, euskara bizia, akatsak zuzentzen, gazteen erregistro kolokiala, motibazioa testuliburutan, aisia eta eskola, komunikabideak, aisialdia, hitzarmengintza, kuadrillategi, udalerriri bateko plana eta zenbait programa gehiago.

Atal bakoitzean biltzen diren programek fitxa teknikoak, deskribapena eta gida dute. Fitxa teknikoan programaren helburuak, sinopsia eta norentzat prestatuta dagoen jasotzen da. Deskribapenean atalaren hurbilketa egiteko programa bat azaltzen da, eta ondoren beste zenbait pro-

grama aurkezten dira era laburragoan. Azkenik, gidan egitasmo horietan dabilzanen kontaktua, telefonoa eta helbide elektronikoa eskaintzen dira argibide gehiago nahi duenak nora jo eta non galdetua izan dezan.

Liburuaren ekarpena interesgarria eta baliagarria da, batez ere kontuan hartzen badugu 12-18 urte bitarteko gazteen artean euskararen sustapenak behar handia duela. Orain arte hurren artean euskararen erabilera areagotzeko oinarriak eta jarduteko moduak nahikoa finkatu dira, eta fruituak ematen ari dira. Aitzitik, gazteen artean, sustapen horiek egiteko moduak eta proposamenak urriagoak dira. Lan horretan hainbat erakunde desberdinek dihardute: Udalek, ikastetxeek, euskara elkarteek... Askotan, ordea, elkarren berri ez dute izaten, eta hutsune hori betetzera dator **Gazteak eta euskara**. Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko egiten ari diren programak bildu eta zein erakundek, nola eta non egiten dituen jasotzen du liburu-gida honek.



**Gazteak eta euskara** liburu argitaratu berriak gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko jada abian dauden hainbat programa biltzen ditu. Hik Hasi Topagunearen eta zenbait udaletako euskara teknikarien laguntzarekin argitaratutako liburu honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesak jasotzen ditu.



*Gazteak eta euskara* liburuaren egileek eta babesleek aurkeztu dute liburuak.



# Argitalpenak



**Berlin Alexanderplatz**  
Alfred Döblin  
Literatura Unibertsala  
Ibaizabal  
506 orr.

“Literatura Unibertsala” bildumako liburu berriena dugu hau. Anton Garikanok itzuli duen lan hau bi mundu gerren artean dago girotua. Barne bakarriketaren bitartez Berlingo kriminalen bizimodu gordina aurkezten zaigu, beren ankerkeria eta inozentzia. •



**Begi argi horiek**  
Juan Kruz Igerabide  
Aizkorri  
154. orr.

“Topaleku” bildumako argitalpen berri honetan egileak neska gazte baten istorioa du ardatz. Machu Picchura daraman inka bidea egitera doa. Abentura honetan kultura zoragarria eta egoera politikoa, bere barne sentimenduak eta misterioa nahasten dira; Perura egindako bidaia ez baita turista soil batena izango. •



**Kaliforniako neskak**  
Joxemari Iturralde  
Ibaizabal  
218 orr.

Irakurle gazteei zuzendutako “Ekin” bildumako liburu honetan Euskal Herritik Kaliforniara doazen Anuxka, Risky eta Ainhoaren abenturak kontatzen dira. Hiru gazteek kalifornian gauza asko ezagutuko dituzte: amodioa eta desamodioa, lagun berriak, Kaliforniako inguruak... eta dena ustegabeko istorio bitxiekin uztarturik. •



**Gabon kanta tikiak**  
Hirusta Records

1998. urtean argitaraturiko *Kanta Tikiak* CDaren arrakastaren ondoren, Hirusta Records zigiluak konpakto berri hau kaleratu du. Hurrei zuzenduriko Gabonetako 13 abesti biltzen ditu. Musika tresnak eta koroak bitarteko, abesti anitzak, alaiak, arinak eta oroiterazak biltzen dira lan honetan. •



**Ipuin Beteak**  
Asun Balzola eta Alicia Ríos  
Aizkorri  
156 orr.

Liburu honek Espainiako eskualde guztietako ipuin herrikoiak biltzen ditu, sukaldaritzaren delarik denetan jaun eta jabe. Ipuin bildumarekin batera, eskualde bakoitzeko errezeta tipikoak jasotzen dira, guztia marrazkiz apaindurik. Sukaldaritzaren ikuspegi jostagarria, jatorra eta barrokoa aurkezten dira. •



**Musikagintza**  
7. alea  
2000ko abendua  
Euskal Kantuzaleen Elkarte

Urtebeteko ibilbidea egin ondoren, musikagintzako berriak biltzen dituen argitalpenaren ale berri honetan ere hainbat albiste eta informazio topa daiteke. Besteak beste, Musika Irakasle Euskaldunon II. Topaketak antolatzekeo ideia eta parte hartzekeo deia luzatzen da. •



# John Elliott

## Berrikuntza heziketa praktikak hasita

John Elliott-en pentsamenduak eta ekarpenek eragin handia izan zuten LOGSEren hasierako diseinu kurrikularra egiterakoan. Hezkuntzaren alderdi teorikoa eta praktikoa gerturatzeko saiakerak egin ditu, eta horren ildotik planteatu du bere proposamen esanguratsuena: ikerketa-ekintza proiektuak. Era berean, hainbat planteamendu kritikatu ditu (ikerketa teoriko hutsak, Errendimendu Akademikoaren Adierazleak, Helbururen Ereduak eta Produkzio-Kontsumoaren Ereduak...), eta horien aurrean alternatibak proposatzen ditu.

### Hausnarketatik hasi

Momentu honetan, 2000. urtearen amaieran eta LOGSEn bildutako Hezkuntza Sistemaren Erreformaren diseinua eta garapena burutu den hamarkadaren ondoren (1990), ekintza politikok gauzatzen ari dira gobernu zentralak bultzaturik. Batez ere, Bigarren Hezkuntzako hainbat ikasgaien ordutegia birbanatzera bideratuta daude aldaketok. "Humanitateen erreforma" k hainbat galdera sorrarazi ditu: ebaluatu gabe erreformatu? Erreformak ezarri benetako prozesu berritzaileak eta aldatzaileak garatu ordez? Praktikoak, irakasleak, ahaztu beste behin ere?... Planteamendu arrazionalistekin eta teknikoekin jarraitzen dugu. Elliot-en hitzetan (1992:58), eta Norris-i erreferentzia egiten diolarik (1991), zera gertatzen da: *mendebaldeko demokrazietako politikok duten hezkuntzaren "merkatu soziala" ren kontzeptuan esanahi sinboliko handia dago, beti "zerbitzu publikoen kostu eta*

### Maria Ines Gabari

NUP. Psikologia eta Pedagogia departamentua. Didaktika eta Eskola Antolakuntzako irakaslea



*etekin ekonomikoekin" kezkatuta daude.*

Elliotten ekarpenen argitasuna are eta gehiago nabarmentzen da Hezkuntza Sistema bere etapa guztietan pasatzen ari den denboraldia kontuan hartuta. Esfortzu handia egiten ari da ikerketa-ekintza proiektuak aurrera ateratzeko, esku-hartzeak kontestualizatzeko, parte-hartzaileak inplikatzeko, irakasleen

formakuntza pentsakorrak bultzatzeko, euren beharrak eta irtenbideak bilatzeratzerakoan kritikoki aurre egiteko gaitza daitezene eta abar. Horiek guztiak heziketaren teoria eta praktikaren artean sortzen ari den urruntasunak eragiten dituen erronka berriei aurre egiteko oinarriak dira. Gure zeregin praktikotik begiratuta, Elliotten proposamenak gogoratzea lehendabiziko ariketa pentsakorra izan daiteke. Ondorengo lana gure ahotsak behar duen erantzun politikoa bilatzea izango da.

### Nor da John Elliott?

Britaniar Hezkuntza Sistemaren erreforman pertsona klabea izan da John Elliott. East Angliako (Norwich) Unibertsitateko katedraduna da. Bere lana erreferentzia baliotsua izan zen LOGSEren (1990) hasierako diseinu kurrikularra egiterakoan. Baina, denen gainetik, Elliott irakaslea Lawrence Stenhouse-en ikasle nabarmena da. B. MacDonald-e-

kin batera hezkuntza arloko talde profesionalentzat derrigorrezko erreferentzia bilakatu da, batez ere irakasleentzat eta politikozentzat, eta horien artean, egunero esperientzian heziketaren teoriaren eta praktikaren arteko interakzioa indartzeaz interesatuta daudenentzat eta ikuspuntu kritikoa eta berritzailea dutenentzat.

Bere meritua asko dira, eta zaila da sailkapen bat egitea batzuk narbarmenduz eta beste batzuk bigarren mailan utziz. CAREren sortzailea eta lehen zuzendaria da. Ikerketa-ekintza proiektu ugari zuzendu ditu Zentro horretan eskolak eta herriko irakasleak inplikatu. Irakasleei zuzendutako ikastaroak diseinatu ditu eskoletan hausnarketa-praktika ikuspuntutik. Era berean, irakasleentzako proiektu profesionalak eta pertsonalak zuzendu ditu hainbat gairen gainean: ikaslearen ikasketa autonomia, esperientzia ikasketetako laguntza, hezitzaileen oinarrizko eskumen profesionalak, irakaslea ikerlari gisa lehen etapetan... Gainera, OECDko aholkularia da, nazioarte mailan *curriculumaren* garapenari buruzko aholkuak ematen dituelarik.

Bere lan oparoaren *ikerketa ildoak* honako hauek dira:

- Ikerketa-ekintza: heziketaren teoria eta praktika.
- Ebaluazioa, programazioa eta hezkuntza politika.
- Curriculuma eta didaktika.
- Balioak hezkuntzan.
- Formakuntza jarraia eta irakasleen formakuntza.

Orotara, John Elliotek 16 ikerketa proiektutan parte hartu du eta hamar libururidatzi ditu. Horietatik bi gaztelanira itzulita daude eta Morata argitaletxeak argitaratuta (*El cambio educativo desde la investigación-acción eta La investigación-acción en educación*). Beste 28 lanetan parte hartu du, kapitulu interesgarriak idatziz (esaterako, "El papel del profesorado en el desarrollo curricular: una cuestión irresuelta en los intentos ingleses de reforma curricular" *Volver a pensar la educación Vol. II* liburuan, zeina hainbat autorek idatzia den eta Mora-

ta argitaletxeak kaleratua). Aipatu lanez gain, 30 artikulua eta argitaratugabeko sei komunikazio idatzi ditu, eta sei txosten ofizialetan parte hartu du.

### Ellioten ikerketa-ekintza (I/E)

Bere ikuspuntua arlo praktikotik dauden adituek diseinatutako oinarrizko ikerketa teorikoaren aurkakoa da. L. Stenhouse irakasle-ikerlariaren ikuskeratik abiatuta, Elliott (1984/1986/1990) bere aitzindariak eraturako I/Eren kontzeptua hobetzeaz arduratuko da Cambridge Institututik. Esan dugun bezala, 16 proiektutan esku hartu du, eta horietatik ezagunenak hauek dira:

1.- *Ford Teaching Project* (1976). Aurkikuntzaren bidezko ikasketan oinarritutako curriculumaren hobekuntza ikertu zuen proiektu honetan.

2.- TIQL (*Teacher and pupil Interaction and Quality of Learning project*) (1981). Ulermenera bideratutako irakaskuntzari lotutako arazoak ikertu zituen hemen.

3.- GRIDS (*Guidelines for Review and Internal Development in Schools*) (1986). Holly-ren iritzi (1984:142), ebaluazio instituzionalera hurbiltzeko saikera bat da honako hau, bere xedea ikastetxeetan curriculumak berrikusi eta garatu nahi dituzten irakasleentzako ildoak eta prozedurak egitea delarik (oinarrizkoak eta bigarren mailakoak).

Elliotten iritzi (1984:1), Ikerketa-Ekintza egoera sozial baten azterketa da, zeinaren helburua ekintzaren kalitatea hobetzea den. I/Ek bere esperantzak zientzia politiko-moralean zenbatuko ditu, eta hor gizarte eta hezkuntza errealitatea eraldatzeko konpromisoa dago. Eskoletan irakasleak egunero bizitzen dituen gatazketaz arduratzen da I/E (eta ez jakintzaren diziplinatik ikerlariak definitzen dituzten arazo teorikoez). Gizakien ekintzetan eta irakasleek bizi dituzten egoera sozialean arakutzen du. Egoera horiek irakasleentzat alderdi batzuetan onartezinak izan daitezke (arazoak), edo alda daitezkeenak (gertakizunak) edo erantzun praktikoa eskatzen dutenak (aginduak).

Elliottentzat I/Eren helburua zera da: irakasleak bere arazoaz duen ulermena

areagotzea (diagnostikoa), egoera-arazoan esku hartzen dutenen eta horien hizkuntzaren ikuspuntutik kontestualizatuz eta interpretatuz. Inolako mugarik gabeko elkarrizketaren bidez ikusten da zein den arazoa, eta ondoren irtenbidea bilatzeko ekintza plana planteatzen da. I/E kontzeptua bi arlotan egituratuta dago:

a) **praktikoa**, zer diagnostikatu, erantzun eta erabaki behar den planteatzen da;

b) **erreflexiboa**, zer eztabaidatu eta ebaluatu behar den planteatzen da.

Hasieran, Elliotek I/E lewiniarra hartzen du erreferentzia puntutzat, baina I/Eren helburuei eta egoeraren errealitateari egokitutako formula bilatzen du. Horrela egituratzen ditu bere ikerketak (**1. irudia, 40. orrialdean**)

- Proiektuaren parte izango den jendea bilatu eta elkartzeko du proiektuaren perspektibak eta urratsak argitzeko.

- Gela bakoitzean **kasuen azterketari** ekiten zaio hurrengo urratsak jarraituz:

1. Arazoak identifikatu:

- Zer egiten du.

- Zein arazo agertzen dira.

- Zein hipotesi-ekintza jartzen da praktikan.

2. Informazioaren bilketa eta interpretazioa, triangulaketa prozeduren bitartez kontrolatuz (Cohen eta Manion, 1980).

3. Prozesuaren eta sor litezkeen aldaketen jarraipena.


4. Txosten deskribatzaileak eta interpretatiboak egitea.

- Bilkura orokorretan kasuen txostenak aztertzen dira eta **ekintza hipotesi orokorrak** adierazten dira.

- **Hipotesi-ekintza** horiek probatzen dira.

Erabilitako metodologia batez ere kualitatiboa da, **hipotesi-ekintza** orokorrak ezin dira ezarri kasuen azterketetik datorren material osoa egin arte. Prozesua espirala da, diagnostikoa eta ekintza artikulatzen dira, eta horren garapenak, azterketak eta ebaluazioak diagnostia eta egoeraren garapena handitzen dute. Elliotek bultzatutako I/E eredu funtsean diagnostikoa da. Kanpoko i-

## IKERKETA-EKINTZA EREDU ESPIRALA ELLIOTT (1991: 72-75)



1. IRUDIA: BRAGA-ren, M.G. (1993: 72) eta PEREZ-en, G. (1994: 182) MOLDAKETA

ttek azpimarratzen du kalitatearen adierazleak errendimenduen adierazleekin identifikatzea *eskola-ekoizpen eraginkorreko unitate bat bezala* instrumentalizatzea dela (Elliott, 1992a: 58).

Autorearen iritziz, jarrera horrek, "merkatu sozialaren" ideologia mantentzen duenak (non hezkuntza bezalako zerbitzu publikoak funtsean produkzio eta kontsumo sistemak diren), balioak eta hezkuntzaren helburuak alde batera uzten ditu. Ondorioz, hizkuntza eta hezkuntza zapaltzaileak sortzen dira, eta garrantzitsuena zera bihurtzen da: **(beheko kuadroa)**

Planteamendu honek guztiak zera dakar: neurketen emaitzak azterketen bidez egiten direnak hezkuntza prozesu bezala identifikatu daitezkeela, kontestualizatzearen efektuak eta hezkuntzaren dimentsio politikoa saihestuz.

Horri guztiari aurre egiteko alternatiba proposatzen du Elliott. Ebaluazioa heziketa balioekin koherentzian aztertu behar dela dio heziketa kalitateaz eta gizakiaren gaitasunen garapenaz iritziak emateko. Gainera, ikaslearen garapeneren ebaluazioak eta indartu nahi diren prozesuen kalitatearen balorazioak ekintza desberdinak izan behar dutela azpimarratzen du.

Hainbat ikastetxetan burututako ikerketa-ekintza prozesuen fruituak ikusita, eta irakasleen parte-hartzearekin eta inplikazioarekin, Elliott, Mayerren aurkikuntzei erreferentzia eginez (1991), hiru talde proposatzen ditu kalitatearen adierazle moduan (Elliott, 1992b: 45):

kertzaileari laguntzailea deitzen dio (koordinazioa, proiektuaren abiatzea, behatzaile parte-hartzailea, argitzailea edo beste mota bateko eginbeharrak ditu).

### Heziketa kalitatearen adierazleak

Errendimendu Akademikoaren Adierazleen aurkako planteamendua du Elliott. Heziketa kalitateaz zer ulertzen dugun asko eztabaidatu da. Ellio-

HELBURUAK	DESIO ETA XEDEEN ordez
PROGRAMAK ETA BANAKETA SISTEMAK	CURRICULUMAREN aurrean
FUNTZIOAK	ROL eta ERANTZUKIZUNAK baino gehiago
ERAGINKORTASUNA	HEZIKETA BALIOAK ordezkatuz
ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK,	EBIDENTZIAREN aurrean
KALITATE KONTROLA	EBALUAZIOAREN lekuan
KONTSUMITZAILEAREN AUKERA	FAMILIEKIKO harremanaren alternatiba gisa



LEHEN TALDEKO KALITATE ADIERAZLEAK	Landa-lana: informazioa hartzeko modu aktiboa, pertzepzioaren lana... Eskolako espazioarekiko erlazioa, bere ingurunearekiko erlazioa kontuan hartuta. Arazoen konplexutasunaren ezagutza eta komunitateko ikuspuntu desberdinen garrantzia.
ESKOLAKO BERRIKUNTZAREN ADIERAZLEAK	Zeharkako edukiak, metodoak eta ekintzak. Egitura eta antolaketa aldaketak: taldekatze malguak, ebaluazio anitzak... Irakasleen eta ikasleen arteko ikerketa bateratua.
ALDAKETA BIDEAREN NORABIDEAREN ADIERAZLEAK	Irakasleen eta ikasleen kontzeptuen, jarrerren, portaeren eta balioen aldaketa. Programazioaren malgutasuna eta ikasleen beharretara irekitzea. Desberdintasun indibidualakiko errespetua. Gaitasun dinamikoen garapena: erabakiak hartzea, erantzukizun zentzua...

### Prozesu eredu

Helburuen Ereduaren edo Produktio-Kontsumo Ereduaren aurrean alternatiba bat proposatzen du Elliottek. Peters eta Stenhousekin batera, heziketa ekintza guztien alderdi etikoa azpimarratzen eta sakontzen du. Ekintza horrek, "giza praktikaren" ekintza bezala, *bere zentzuan bertan aurkitzen du balioa, eta ez kanpotiko helburuak lortzeko tresna edo bitarteko bezala* (Pérez Elliott, 1993: 11). Horrela, bitartekoen eta helburuen (edo prozeduraren printzipio batzuk mantentzen lagunduko duten balioen) derrigorrezko inplikazioa defendatzen du.

Elliotten iritziz, Stenhouse, *Humanities Curriculum Project* proiektuan (1967-1972), prozeduren printzipioetan oinarritutako heziketa etikoaren adibide bat da. Besteak beste, printzipio hauek aipatzen ditu:

1.- Gelako oinarrizko ekintza EZTABAIDA izan behar dela (eta ez Instrukzioa).

2.- Irakasleek eztabaidan DESADOSTASUNA bermatu behar dutela (bateratasunaren edo erosotasun pasiboaren aurrean).

3.- Irakasleek PROZEDURAN NEUTRALITASUNA mantendu behar dutela (beraien autoritate posizioa euren ideia propioak bultzatzeko erabili gabe).

Zentzu honetan, Elliottek Stenhouse jarrera bera hartzen du Prozesuen Ereduan curriculumaren egite, garapen eta erreforma iraunkorren estrategiari dagokionean. Jarrera honetatik ondorioztatzen da heziketa balioak ez direla irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren

bidez lortu behar aurrez ezarritako helburuak lortzeko. Heziketa balioak prozesuan garatu behar dira, subjektua-taldearen elkartrukean, aurrez esan ezin daitekeen moduan, pentsamenduan, sentimenduetan eta ekintzetan eraginez. Hau da praktika didaktikoren benetako zentzua; gela barruan eta eskolan elkartrukea inplikatzeko duten lan prozedura dinamikoak erraztea.

Planteamendu hau hezkuntzan nagusitzen diren jarrera menperatzailetatik urrundu egiten da. Jarrera horiek berehalako errendimendua lortzera bideratuta daude. Haatik, Elliottek helburuen eta bitartekoen aldibereko hausnarketa errebindikatzen du, tresnen eta heziketa prozeduren balorazio kritikoa eta prozesu desberdinei atea irekitzea hausnarketa eta eztabaidaren bitartez.

### Irakasle ikerlarien autonomia

"Hutsik egin gabeko aditua"ren definitio hori irakasleen lana ikuspuntu tekniko hutsetik begiratuta soilik egina dago. Kasurik onenean, irakasleen **desprofesionalizazioa** dakarrela dio.

Prozesuen Ereduak Britania Handian "irakasle-ikerlaria" sorrarazi zuen. Prozeduretako printzipioak ez dira portaera zehatzetan espezifikatzen, eta ondorioz, irakasleek gelan antzematen dituzten portaerak prozeduren printzipioetan agertzen direnekin lotu behar dituzte. Horrek esan nahi du diagnosiaren hipotesi batzuk egin behar direla ikusteko gelako zein jokoak eragin duten bat prozeduretako printzipioekin eta zeinek ez. Hipotesi horiek ikerketa-ekintza

parte-hartzailearen prozeduratik sortutako "kalitatearen adierazleak" dira.

Elliotték Schön-en (1983, 1988) pentsamendu praktikokoaren kontzeptua hartu eta zehaztu egiten du, eztabaida praktikokoaren izaera kooperatiboa azpimarratuz. Elliottentzat irakasleen ezagutza profesionala heziketa praktikaren diseinua, garapena eta ebaluazioa egiten jakintzearen (ekintzan jakitea) eta pentsatzen eta ikertzen jakitearen (ekintzan eta ekintzari buruz hausnartzea) prozesu konplexu baten ondorioz sortzen da. Horrela, pilatutako ezagutza zientifiko kulturalak hausnarketarako oinarri bezala balio duenean hartzen du zentzua, baina ez du ordezkutzen. Horrez gain, hausnarketa indibidualetik hausnarketa kolektibora pasa behar da ezagutza praktikoa garatzeko. Hausnarketa-eztabaida eta elkarrizketa-ekintza espirala amaigabea da, eta ezin da ideologia menperatzailearen zerbitzura jarri. Irakasleak berak bakarrik ezin du errealitatearen autoulertuntzan eta autojustifikazioan erortzeko arriskuan egon.

Jarrailu beharreko bideak berriz ere aurreko atalera garamatza. Ikerketa-ekintzak are eta zentzu handiago hartzen du irakaslearen garapen profesionalerako tresna baliagarria dela jakiten dugunean. Eskolak, orduan, garapen profesionalerako zentroak bihurtzen dira, curriculum egiteko eta garatzeko lekuak.

### Ulemerako irakaskuntza

Aurrez ezarritako helburuen arabera irakasteko eta emaitza homogeneoak lortzeko ezartzen diren prozeduren aurrean ere, Elliottek beste ideia batzuk

defendatzen ditu.

Irakaslearen zeregina aldatu egiten da hezkuntza prozesu bat bezala ulertzen bada, non ikasleak bere ulermen pertsonala eraikitzen duen bizitzako egoeretatik abiatuta, ezagutzaren egitura publikoak erabilitakoan bere gaitasun intelektualak garatzen dituelarik (Pérez Elliott, 1993:13).

Elliott Stenhouse hezkuntzaren kontzeptuan oinarritzen da oinarritzeko lau prozesu barneratzen dituelako:

1. **Entrenamendua** gaitasunak garatzeko formula egoki bezala.

2. **Eskolatzera** informazio anitza hartzeko eta gordetzeko prozesuen multzoa bezala.

3. **Hastapena** ikaslea esplizituki edo isilpean transmititutako balio eta arau sozialei hitz emanda gelditzen den prozesu multzo bezala.

4. **Induzkioa** ezagutza erraztera bideratutako prozesu multzo bezala. Kasu honetan, ezagutza historikoki eraikitako eta kulturaren sartutako pentsamendu sistema bezala ulertzen da. Hau da berez hezkuntzari dagokion atala.

Indukzioa egite pertsonalen espazioan murgilduz iristen da. Izan ere, psikologia konstruktibistaren arabera, burmuin indibidual bakoitzak pentsamendu publikoko sistemak eraikuntza partikularren bitartez ikasten ditu. Kasu honetan, Kemmis-en (1990) hitzetan, **ulermen birkonstruktibo globala** izango litzateke. Horrek esan nahi du gai dela informazioa dimentsio klabeen markoan jartzeko. Dimentsio horiek ezagutza eremu jakin bateko (diziplina) pentsamenduaren egitura eusten dute.

Ordena honetan, eskolaren zeregina, informazioa igortzea baino lehen, zera da: ezagutza arruntaren ahalmena berregituratzeko prozesuak bultzatzea. Izan ere, ezagutza arrunt horrekin egiten diote aurre neska-mutilek heziketako elkartrukeari. Hau da, aurretik ezarrita dauden eskemak mugitzeko sortzen diren erresistentziak gaintzen lagundu behar du eskolak. Nola? Gertakizun, printzipio, balio eta abarren ezagutzak aurkitzeko eta esperimentatzeko bideak eskainiz haurrei, erritmo, interes eta garapen anitzak errespetatuz... Ikas-

kuntzaren esanahia probokatzeko, bai ulermenean eta bai ekintzan, hezkuntzaren etikari lotutako ezaugarri bat da.

### Ondorio bezala

Artikulu labur honetan John Elliott pentsamenduaren eta praktikaren ekarpen nagusienak biltzen saiatu gara. Ahal den ondoen ulertzeko, artikulua ataletan banatu dugu, baina ez dugu aharatu behar praktikan ezin direla banatu. Prozesuen Eredua prozeduren printzipioetan oinarritua dago, eta ulermen

### Bibliografia

#### Elliotten lanak ingelesez:

- ELLIOTT, J. (1976): *Developing Hypotheses about Classrooms from Teachers Practical Constructs. An Account of the Work of the Ford Teaching Project*. Cambridge. Institute of Education.
- ELLIOTT, J. (1978): "What is Action Research in schools". *Journal of Curriculum Studies*, 10 (4): 355-357.
- ELLIOTT, J. (1981): *Action-Research: A Framework for Self-evaluation in Schools*. Cambridge. Institute of Education.
- ELLIOTT, J. (1991): *Action Research for Educational Change*. Milton Keynes. Open University Press. (Ed. española, 1993, Morata).

#### Elliotten lanak gaztelaniaz:

- ELLIOTT, J. (1984): *Métodos y técnicas de investigación-acción en las escuelas*. Madrid. MEC.
- ELLIOTT, J. (1990): *La Investigación Acción en educación*. Madrid. Morata.
- ELLIOTT, J. (1991): "Actuación profesional y formación del profesorado". *Cuadernos de Pedagogía*, 191: 76-80.
- ELLIOTT, J. (1992a): "¿Son los "indicadores de rendimiento" indicadores de la calidad educativa?". *Cuadernos de Pedagogía*, 206: 56-60.
- ELLIOTT, J. (1992b): "¿Son los "indicadores de rendimiento" indicadores de la calidad educativa?". *Cuadernos de Pedagogía*, 207: 44-47.
- ELLIOTT, J. (1993): *El cambio educativo desde la investigación-acción*. Madrid: Morata.
- ELLIOTT, J. (1995): "El papel del profesorado en el desarrollo curricular: una cuestión irresuelta en los intentos ingleses de reforma curricular". En AA.VV.: *Volver a pensar la educación II. Prácticas y discursos educativos (Congreso Internacional de Didáctica)* (pp. 245-272). Madrid: Morata.
- ELLIOTT, J. y otros (1986): *Investigación-acción en el aula*. Valencia. Generalitat Valenciana.

#### Elliotti buruzko lanak ingelesez:

- KEMMIS, S. (1992): *The nature of action research: some general principles*. Victoria. Deakin University (174 pp.). Bilbao. I.C.E. Universidad País Vasco.
- KEMMIS, S. y DICHIRO, G. (1987): "Emerging and evolving issues of action research praxis:

globalerako ikasketari baino ez dio erantzuten. Bere ebaluazioa kalitatearen adierazleek bideratzen dute, eta ez errendimenduaren adierazleek. Irakaslea eztabaida kolektiboen eta ekintzen-ikerketen prozesuetan etengabe barneratua dagoen ikerlaria da.

Elliotten diskurtsoa berrartzea hezkuntzako praktikoen zatitza beharrezkoa dela irizten dugu; bai LOGSeren 10 urteko bizia ebaluatzeko, eta bai datozkigun erroka berriei kritikoki, ongi oinarrituta eta praktikatik erantzun ahal izateko.

An Australian perspective". *Peabody Journal of Education*, 64 (3): 101-130.

- MacDONALD, B. y otros (1987): *Police probationer training: the final report of the stage 11 review*. Hmso.
- MAYER, M. (1991): *Environmental Educational in Italy: proposals for an evaluation strategy*. Estudio preparado por el proyecto OCDE, Roma, Italia.
- NORRIS, N. (1991): *Evaluation, Economics and Performance Indicators*. Comunicación presentada en la Conferencia anual de la British Educational Research Association en el Nottingham Polytechnic.
- PETERS, R. S. (1966): *Etics and Education*. Londres: Allen and Unwin.
- SCHÖN, D. A. (1983/1988): *The reflective practitioner. How professionals think in action*. London. Temple Smith.
- STENHOUSE, L. (1978): "Case study and case records: Towards a contemporary history of education". *British Educational Research Journal*, 4 (2): 21-39.

#### Elliotti buruzko lanak gaztelaniaz:

- KEMMIS, S. (1989-1990): "Investigación en la acción". En HUSEN, T. y POSTLETHWAITE, T. N.: *Enciclopedia Internacional de la Educación* (6) (pp. 3330-3337). Madrid. MEC-Vicens Vives.
- KEMMIS, S. (1990): "Introducción". En CARR, W.: *Hacia una ciencia crítica de la educación* (pp. 7-38). Barcelona. Laertes.
- KEMMIS, S. y McTAGGART, R. (1988): *Cómo planificar la investigación-acción*. Barcelona. Laertes.
- PÉREZ GÓMEZ, A. I. (1993): "Comprender y enseñar a comprender. Reflexiones en torno al pensamiento de J. Elliott". En ELLIOTT, J.: *El cambio educativo desde la investigación-acción* (pp. 9-19). Madrid: Morata.
- STENHOUSE, L. (1984/87): *Investigación y desarrollo del curriculum*. Madrid. Morata. (2ª ed.).
- STENHOUSE, L. (1987): *La investigación como base de la enseñanza*. Madrid. Morata.

#### Elliotti buruzko lana katalanez:

- KEMMIS, S. (1992): "L'educació del professor i el desenvolupament de comunitats crítiques de professors". En *Crítica de la pedagogia i Pedagogia crítica*. Valencia. Federació de MRP's del País Valencià.



hh  
hik hasi

# gazte-ak eta euskara

Liburu honek, 12-18 urte bitarteko gazteen euskararen erabilera sustatzeko programak jasotzen ditu.

